

"Arrasate ingurua erlijio krisiaren adierazle da garai berrien eraginez"

Xabier Andonegi  
Erlijio Zientziak  
> 06



**G2a** Euskarazko literatura solasaldiak > 23

**GIZARTEA** Pobrezia desagerrarazteko ekintzak izango dira etzi > 02-03

**OÑATI** Gaur zabaltzen da Uarkaldeko etxeetarako izenemate epea > 12

**MUSIKA** Debagoiendar asko egon ziren Latzenen lehen kontzertuan > 26

**EKONOMIA** > TURISMOA

## Zubirako turismo aurreikuspenak bete egin dira, bisitari asko etorri da eta

**EMAITZA ONAK** Ibarreko turismo arduradunak pozik daude; jende asko espero zuten, eta hala izan da

**OÑATI** Hiru egunetan, 300 bisitari izan dituzte turismo bulegoek, eta Arrikrutzen ere asko egon dira

**EUSKALDUNAK** Turista gehienak Gipuzkoa eta Bizkaia aldekoak ziren; gero, madrildarrak eta katalanak > 04

### Goi mailako umorea eta biolin doinuak egon ziren Espaloian

Barre algarekin, lehenengo, eta txalo beroekin, bukaeran, eskertu zuten ikusleek Yllana taldeak Elgetako Espaloia antzokian taularatu zuen Pagagnini antzezlan musikala, eguen gauean. Emanaldi berezia izan zen, Yllanako aktore madrildarrek munduko biolin-jole onenatariko bat, Ara Malikian, izan zutelako lagun agertokian.

Konposatzaile klasikoaren musikaz gain, beti bezala, Yllanak Elgetara askotan ekarri izan duen absurduaren umoreaz gozatu zuten ikusentzuleek. > 26



PUNTA-PUNTAOKO Ara Malikian, munduko biolin-jole onenatariko bat, Yllanako aktoreekin.

JOSETXO ARANZABAL

#### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Elkarrizketa > 06  
Iritzia > 07-08  
Herriak > 09-14  
Kirola > 15-22  
Kultura > 23-27  
Saillkatuak > 28  
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29  
Berri-zakua > 30-31  
Azkena > 32

#### GARAPENA > GARAIA

### Teknologia Parkeen batzarra

Espainiako Parke Teknologiko eta Zientifiko VI. Hitzaldia Arrasaten izango da, Garaia Berrikuntza Gunean. Euskal Herriko eta Espainiako 120 lagun etorriko dira, eta berrikuntzaz berba egingo dute, hainbat ikuspuntutik. > 05

#### KIROLA > XAKEA

### Fran Miguelek FADE Maisu titulua eskuratu du

Aretxabaletako xake jokalaria Fran Miguelek Nazioarteko Xake Federazioak ematen duen FADE Maisu titulua eskuratu berri du, garrantziaren arabera federazioak ematen duen hirugarren titulua. Lehen aldia da ibarreko jokalaria batek halako titulua eskuratzen duena.

Halaber, Arrasate Hiria Xake txapelketako bosgarren jardunaldian, Aretxabaletako Aitor Alcaidek Alejandro Franco maisua menderatu zuen. Hala, madrildarrak txapelketa irabazteko aukera guztiak galdu ditu. Azken jardunaldia egubakoitzean jokatuko da, 19:00etan. > 21

#### LANA > OSAKIDETZA

### Lanuzteak etzi osasun zentroetan

Osasun arloko ELA, SATSE, LAB, CCOO, UGT, ESK eta UTESE sindikatuek 15 minutuko lanuzteak deitu dituzte etziraiko Osakidetzako zentro guztietan. Horrekin, Osakidetzak egin dien hitzarmen kolektibo proposamenaz protestatu gura dute. > 04

GIZARTEA &gt; POBREZIA DESAGERTZEKO MANIOARTEKO EGUNA

# Munduko pobrezia zerora eramateko, herritarren lana ezinbestekoa da

**DESAGERRAZI** Urriaren 17a Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko eguna denez gero, ekitaldia izango da Arrasateko plazan arratsaldean

**POBREZIA ZERO** Eskatu nahi dute agintari politikoek hartutako konpromisoak bete ditzatela munduko pobrezia aurre egiteko

**PARTE-HARTZEA** Pobreziarekin amaitu daitekeela diote Pobrezia Zerokoek, baina horretarako herritar guztion ahalegina ezinbestekoa dela

IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ARRASATE

Urriaren 17a Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna da. Egun horren harira, ibarreko bost Gobernu Kanpoko Erakundetako kideek sortutako Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako Lan Taldeak bat egin du Pobrezia Zero ekimenarekin. "Pobreziaren gaia landu beharra zegoen. eta kale ekintzei ere garrantzia eman behar zitzaion", esan digu Mundu Solidarioa Helburu eta Pobrezia Zero ekimena-tako kide Maitane Igartuak.

Milurteko Garapen Helburuei erreparatuta, horietako bat pobrezia amaitzea dela esan digute Pobrezia Zero ekimenekoek. Hortaz, nahi dute jendea kontzientziatzea, esanez posible dela hainbat jarrera aldaketa txikirekin pobrezia amaitzea. "Pobrezia ez da bakarrik diru sarrera gutxi edukitzea. Pobrezia da goseak egotea, babes aterperik ez izatea, hemen senda daitezkeen gaixotasunekin beste leku batzuetan hiltzea edo sendatzeko medikurik edo botikarik ez izatea, eskolara joateko aukerarik ez izatea edo irakurtzen ez jakitea, langabezian egotea eta egunean eguneko bizi izatea etorkizunean izango denaren beldur, purutasunik gabeko urarekin bizitzea, inpotentzia, ordezkaritza eta askatasun falta... Hortaz, esan nahi dugu posible dela beste mundu bat sortzea eta mundu horretan denok normal bizitzeko aukera izatea, baldin eta soberan dauden baliabideak egoki erabiltzen badira", azaldu digu Maitane Igartuak.

## GUREAN ERE POBRE

Pobreziak berba egiten dugunean, maiz jotzen dugu herrialde urrunetara, ohartu gabe gurean ere pobrezia badela arazoa, kanpoan bezalaxe. Maitane Igartuaren esanetan, "gurean ere bada jende pobrea. Ikusten da bada goela bizi izateko etxerik ez daukan jendea, langabezian dagoena, kanpotik etorri dena bere herrian bizimodua aurrera ateratzeko modurik ez daukalako eta, alderantziz, hemendik kanpora joan behar izan duena..."

Baina horrekin konturatu gabe, sarritan, gauza fisikoei erreparatuta esan genezake gure beharren gainetik bizi garela. "Arropa pila bat daukagu, ura larregi erabiltzen dugu, garraio publikoa apenas erabiltzen dugu eta norbera bere autotan mugitzen gara batetik bestera... Jendearendako garrantzitsuena da bakoitzak aukerak izatea nahi duena egiteko, eta horretarako dirua ez da garrantzitsuena. Hori jakinarazi nahi dugu: guztia hobeto banatuta, modu egokian, lor daiteke denok ondo bizi izatea", dio Maitane Igartuak.

## Milurteko Garapen Helburuetariko bat da pobrezia eta goseterik larriena desagerraraztea

## POBREZIARI AURREA HARTZEKO

Jende arruntak pobrezia arazoari aurrea hartzeko zein bide jarraitu behar duen galdetuta, Maitane Igartuak esan digu, lehenengo, informazioa jaso behar dugula, jakiteko zer pasatzen den munduan eta baita gugandik gertu ere. Ondoren, hausnarketa egin behar dela horri buruz, gure burua ohartaraziz zenbateko ardurara dugun. "Behin informazioa jaso eta hausnartu eta gero, ikusiko dugu nola jarrera aldaketa txikiekin lor daitezkeen gauzak. Esaterako, horrenbeste ez kontsumituz; kontsumo arduratsua eginez, hau da, kon-

tsumitzen dugun hori nondik datorren eta zein prozesu jarraitu duen ikusiz; baliabideak zentzuz erabiliz, ura, adibidez... Bestalde, ikusi beharko genuke inguruan zer gertatzen den eta, oso urrutira joan gabe, beharbada laguntzeko aukera izan genezake, pobrezia aurre eginez".

## GIZA GARAPENA EREDU BERRIRAKO

Pobrezia Zero ekimenak argi utzi nahi du garapen eredu berri baten beharra dagoela, giza garapenaren ikuspegitik begiratutako garapenarena, hain zuzen ere. "Giza garapena da pertsonen hautatzeko aukerak handitzeko pro-



ARRASATE Pobreziaren aurkako ekintzak egin izan ditu Pobrezia Zerok Arrasaten; argazkian, sinadurak biltzen.



EKONOMIA &gt; TURISMOA


## Turista asko etorri dira zubian, batez ere euskaldunak

Oñatiko turismo bulegoaren arabera, 300 bisitari izan dira Oñatin, eta Arrikruzten zapatuko talde guztiak bete egin ziren

LEIRE KORTABARRIA &gt; OÑATI

Pilareko zubia oso ona izan da turismo aldetik. Lau turismo bulego –Eskoriatzakoa, Oñatiko, Leintz Gatzagakoa eta Arantzazukoa– zabalik egon dira, eta merezi izan du, Oñatiko bulegoko Iñaki Igartua arduradunak dioskun moduan: "Oñatira, 300 lagun etorri dira, eta hori, hiru egunerako, primeran dago". Zapatuan, bisita gidatuak egiteko hiru talde izan zituzten.

Arrikruzten, arazo txiki bat egon da: hango telefonoa hondatuta egon da, baina hori ez da oztopo izan kobak bisitatu gura zutenentzako: hala, zapatuan, adibidez, txanda guztiak beteta zeuden.



TURISTAK Bisita gidatu asko egon dira Oñatin.

JOSETXO ARANZABAL

Gatzagakako arduradunek esan dutenez, "jende asko etorri da, eta halaxe espero zen. Jendeak eskatuta, Dorletara bisitak ere izan dira, gatz museoaz gain".

Turismo gehiena Euskal Herrikoa izan da, baina madrildarrak, bartzelonarrak eta, Eskoriatzan, irlandarrak ere egon dira Debagoienera bisitan.



ELKARRETARATZEA Bergarako plazan, LAB eta ikasle talde bat.

GOITB

POLITIKA &gt; MOBILIZAZIOAK

## Atxiloketen aurkako mobilizazioak egin zituzten

Ezker abertzaleak deitutako borroka egunak oihartzuna izan zuen ibarrean

ran, eguerdian, LABek eta Bergarako ikasleek. LABen arabera, "Espainiako estatuak aspalditik burutzen duen Ezker Abertzalearen kriminalizazio eta jazarpen estrategiaren barruan" daude atxiloketak.

A.G. &gt; BERGARA

Mobilizazioak egon ziren joan den egunean Debagoienera, aurreko astean Batasuneko mahai nazionalako kideen atxiloketak salatzen.

Hala, ezker abertzalearen deialdiarekin bat eginaz, elkarretaratzea egin zuten Bergara-

Antolatzaileen datuen arabera, Mondragon Unibertsitate osoan egin zituzten geldialdiak eta elkarretaratzeak; baita Arrasateko eta Oñatiko institutuetan eta Almenen ere, eta Fagor Garagartzan, Geyserrren, JMAn eta Arrasateko Udaltxean. Arratsaldean, kale agerrialdia izan zen Bergaran.

LANA &gt; OSAKIDETZA

## Lanuzteak egingo dituzte Osakidetzan

Sektore horretako zazpi sindikatuk 15 minutuko lanuzteak deitu dituzte etzizako, Osakidetza hitzarmen kolektibo proposamenaz protestatzeko

L.K. &gt; ARRASATE

Osakidetza egoitza guztietan 15 minutuko lanuzteak deitu dituzte ELA, SATSE, LAB, CCOO, UGT, ESK eta UTESE sindikatuek

etzizako, eguaztena. Horrenbestez, aurrera jarraitzen du hitzarmen kolektiboaren inguruko gatazkak Osakidetza eta sindikatu horiek ordezkatutako lan-

gileen artean. Izan ere, mobilizazio horiekin, aipatutako sindikatuok Osakidetza "negoziatzeko jarrera eza" salatu gura dute, eta hilaren 4an egin zuen eskaintza "langile-multzoen arteko diskriminazioa handitu" egiten dela, euren esanetan. Hala, Osakidetza eskaintza hura nahi eta nahi ez sinarazi egin gura diela salatu dute sindikatu horiek.

Osakidetza, uztailen, medikuen SME sindikatuarekin hitzarmena sinatu zuen, eta horren edukian gainerako sindikatuek ez zuten zeresanik izan. Oro har, hauxe aurpegiratzen diote Osakidetza: "Ahaztu egiten da, ibilbide profesionalaz gain, beste gai batzuk daudela mahai gainean, hala nola, soldata-taulen birbanatzea, funtzioak definitzea,

lan-karga eta erritmoen konponbidea ematea, euskalduntzea, lantaldea gaztetzeko neurriak, eta pribatizazioei ezezkoa".

**"ALPERREKO ESTRATEGIA"**

Osakidetza, bere aldetik, onartu du akordio ezak "erabateko borrokara" daramala euskal osasun zerbitzua, eta borroka estrategia "alperrekoa" dela.



**Erosten jakin:**  
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**  
Erosten jakin

GARAPENA > GARAIA BERRIKUNTZA GUNEA

# Arrasate parke teknologikoen hiriburu izango da hiru egunez

Espainiako parke teknologikoen Arrasaten, Garaia gunean, egingo dute euren VI. Hitzaldia

Euskal Herriko, Debagoieneko bertako eta Espainiako hizlariak izango dira, eta 120 lagun denetara

tan, martitzena, egingo dute hasierako ekitaldia jardunaldiak aurkezteko. Andoni Gartzia Garaia Berrikuntza Guneko kudeatzaileak eta Julian Sanchez Euskal Herriko Parke Teknologikoen sareko presidente eta APTEko (Espainiako Parke Teknologiko eta Zientifikoen Elkarte) presidenteordeak egingo dute aurkezpena.

Konferentziaren helburua, ideiak eta esperientziak trukatu, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren artean dauden mugak ezabatzea da.

## BERRIKUNTZA

Alfons Cornella (Zero Factory eta Infonomia aldizkariaren zuzendaria) izango da zeremoniamaisu. Berrikuntzaz egingo dute berba hainbat adituk.

Hala, lehenengo egunean, eguaztenean, honako hitzaldiak egingo dituzte: berrikuntzaren mugak (Alfons Cornella), berrikuntza komunikazioan (Pep Torres sortzaile, idazle, asmatzaile eta musikaria, Stereonoi-sekoa), berrikuntza ingurune



Andoni Gartzia. GOIENKARIA



Alfons Cornella. AZK



Pep Torres. AZK

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE  
Euskal Herriko eta Espainiako parke teknologiko guztietako ordezkariak eta adituak Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean izango dira datozen egunotan, 120 lagun, hain zuzen ere. Izan ere, Espainiako Parke Teknologiko eta Zientifikoen VI. Nazioarteko Hitzaldia Garaian izango da etzi, eguaztena, eta hilaren 18an, eguena. Hala ere, bihar ber-

kulturaletan (Ignacio Ruiz de Alegria, Bultz-Lanz Consulting-eko zuzendari eta Gandiaga Topaguneko kudeatzaile) eta berrikuntza tradizioetan (Ekain Murua, Arantzazuko Artzain Eskola).

Eguenean, hauek izango dira berbaldiak: berrikuntza enpresetan (Eider Larrea, ABB Niessen; Itziar Unzueta, Inkoa; eta Pere Martinez, Novell Spain), berrikuntza sarean (Josu Aranberri,

i2Bask), berrikuntza lankidetzan (Angel Arbonies, Mondragon Innovation and Knowledge, eta Anxo Sanchez, Carlos III.a Unibertsitatea) eta gastronomian (Jesus Santamaria, Bokado). Bukaera ekitaldia Jesus Candil Espainiako Industria Garapen Zuzendari Orokorra egingo du.

Andoni Gartzia Garaiaiko kudeatzailearen esanetan, jardunaldiok "harreman eta interakti-

bitate izaera" izango dute, "eten-gabe aldatzen dabiren gizarte baten lider izatea ahalbidetuko diguten ideia berriak elkarbanatzeko".

## FAGOR ETA ARANTZAZU

Aipatzekoa da ere bisitariak Debagoieneko bi toki ezagutzeko aukera izango dutela: Fagor Etxetresna Elektrikoen lantegira eta Arantzazuko basilikara bisita gidatuak egingo dituzte.



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.  
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!  
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



**2 URTE**

1.850 X 598 X 600 mm

**A** Saillapen energetikoa

**HOZKAILUA COMBI 6 FAC-495**  
420 € 70.140 pta



**2 URTE**

1.000 b/min 5 kgr.

**A** Saillapen energetikoa

**ONTZI-GARBIGAILUA LJA-0250**  
KARGA ERDIA   
305 € 50.935 pta



**2 URTE**

1.000 b/min 5 kgr.

**A** Saillapen energetikoa

**GARBIGAILUA LA-110**  
  
305 € 50.935 pta



**2 URTE**

LABEA BITROZERAMIKA STA1410

**LABEA eta BITROZERAMIKA INSTALATUTA**   
335 € 55.945 pta



**2 URTE**

Sukalde itxia, berotzen ez duena, igeltserotza lanik barik. Kutxa eta gaineko sukalde bikoitzarekin.  
Altuera: 85 cm.  
Luzera: 85 cm.  
Sakonera: 60 cm.

**BEROTU SUKALDEA C-85 NC**  
1925 € 321.475 pta



**2 URTE**

**TELEBISTA SANYO LCD 20" CE20LD51- C LTD (TDT) integratua**  
430 € 71.810 pta



**2 URTE**

**TELEBISTA SANYO LCD 26" CE26LD81- C LTD (TDT) integratua**  
650 € 108.550 pta



**"VERO" MAHAIA 110x70 cm, zabalgarria 160x70 cm-ra**  
450 € 75.150 pta



**Fagor Eko-igorle elektrikoak**

	ED	E
(610x1.060x95) mm	370 €	345 €
(610x910x95) mm	330 €	310 €
(610x760x95) mm	295 €	270 €
(610x610x95) mm	255 €	230 €
(610x460x95) mm	215 €	195 €

ED: Elektroniko digitala  
E: Elektroniko, eskuzkoa

Europar Batasunaren arategiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.

A >>>> 70%  
A >>> 45%  
B >> 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**  
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK

Laikoendako oinarrizko teologia ikastaroa antolatu du Erligio Zientzietarako Goi Ikastegiak, Arrasateko artziprestaldearekin elkarlanean. Eguazten arratsaldeetan izango dira eskolak, azarorako hasi eta maiatzera bitartean. Antropologia, teologia eta espiritualitatearen gaineko gaiak landuko dituzte, adituen eskutik, besteak beste, fedea eta kultura uztartuz.

Xabier Andonegi > Erligio Zientzietarako Goi Ikastegiko zuzendaria

# "Arrasate ingurua erlijio krisiaren adierazle da modernitatearen eraginez"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Donostiako Erligio Zientzietarako Goi Ikastegiko zuzendaria da Xabier Andonegi. Donostiako Seminario-ra edo Gasteizko Teologia Fakultatera joan gabe, ibarrean bertan egin daitekeen ikastaroaren gaineko azalpenak eman ditu Arrasate Irratian egindako elkarrizketan.

**Zer dela eta egingo duzue ikastaroa? Abade falta dagoelako ala, oro har, erlijio hezkuntza bultzatzeko?**


Hainbat lekutan egin ditugu teologia ikastaroak, herriz herri edo bailaraz bailara. Izan ere, Donostiako seminarioan badaukagu, aspalditik sortuta, gaur egun Erligio Zientzietako Institutua deitzen dena. Hor, unibertitate mailako ikasketak egiten dira; diplomatura eta lizentziatura. Baina badago beste jende mota bat, horrelako ikasketak egin gabe, gai hauekiko, teologia-erliko edo erlijio-erliko, interesa duenak. Hori dela eta, pentsatu genuen irakasle talde bat ipintzea eta gu geu joatea eskolak ematera. Aurren, Arrasateko abade batzuek interesa azaldu dute, eta gu prest agertu ginen, taldea osatuz gero, eskolak emateko.

**Mugatutako taldea da ala edozeinek hartu ahal izango du parte ikastaroan?**

Talde irekia da, baina interesa dutenei zuzendua. Abiapuntua da Eliza inguruan dabilen jendea: katekesian, Caritasen, liturgian... Herriko jendea da, baina askotan ez dauka hezkuntza berezirik, borondate ona eta bizitzak ematen duen jakintza baino. Jakintza arloan, gauzak nola dauden askotan ez dakite. Abiapuntua talde hori izanik, ez da talde itxia; edozeinek har dezake parte. Gureta, are eta hobeto erlijio, teologia, Eliza, gizakien zein gizarteko gaiekiko interesa duen beste edozein ere etorriko balitz. Normalean, talde txikiak izaten dira, eta gure planteamendua, gainera, talde txikietan lan egitea da: gutxienez 12 lagun, eta 30, gehienez. Elkarrizketen bidez egiten dugu lan. Hortaz, gutxieneko taldea elkarreza espero dugu, Arrasatekoak ez ezik, ibar osokoak.

**Zein eduki landuko duzue?**

Lehenengo lau saioetan, antropologiaren jardungo dugu: aztertuko dugu non bizi garen mundu honetan, herri honetan, gizarte honetan, kultura honetan... Bestalde, pertsona garen



Xabier Andonegik beste hainbat aditurekin eskolak emango ditu eguaztenetan Arrasaten.

GOIENKARIA

neurrian, zein kezka, galdera eta zalantza dauzkagun ikusten dugu. Hortaz, aztertzen dugu non gauden, zein egoeratan gauden, zein ikuspegi dauden, gure kezka zein diren eta nolako erantzunak ematen zaizkien kezka horiei, ikuspegi batetik zein beste batetik.

Gero, mami nagusian sartzen gara, Zer gara? galderari erantzuten. Kristauak gara edo izan nahi dugu. Bakoitzak bere zalantza edo gorabeherak izan ditzake, baina, Elizatik bultzatutako ekimen bat izanik, kristauak gara. Baina pentsatu behar dugu zer den kristau izatea. Jesukristorengan sinestea bada, pentsatu behar dugu ea Jesukristo ezagutzen dugun: Jesus Nazaretekoa, bere bizitza, bere historia, bere mezua, Ebanjelioa... sakondu behar da lehenengo. Ikusi behar dugu zer esaten duen, zein mezu ekarri zuen eta zein praktikotasun duen horrek guztiak guretzako: Jaun-

PARTAIDEAK

**"Ikastaroa zuzenduta dago Eliza inguruko jendeari, baina interesa duen edonorendako da"**

EDUKIA

**"Kristautasunaren hausnarketa eginda, praktikan jartzeko bideak aztertzen ditugu"**

IDEIA BERRIAK

**"Modernitatearen arabera, erlijioa ez da sartu behar arlo sozial eta kulturaletan"**

goikoa, lagun hurkoa, maitasunaren legea. Teorian, badakigu, baina hori guztia sakontzea da kontua: zer da Jaungoikoa?, zeri esaten diogu Jaungoikoa?, Zein teoria daude horri buruz? Bestalde, jakin behar dugu hori guztia non oinarritzen den: Biblian, Ebanjelioetan... baita ere hori guztia nola dagoen idatzita, noiztik, nola interpretatzen den eta gaur egun nola ikusten den. Horretarako, Biblia aztertu behar da. Hori da, azken batean, ikastaroaren mami nagusia, kristau izatearen oinarriak sakontzea: Jesukristo, Jaungoikoa, Eliza, Biblia edo Ebanjelioak.

Ikastaroa amaitzeko, azken lau saioetan mundu honetan gaudela, pertsonak garelako eta kristauak garelako kontuan hartuta, zer egin behar dugun aztertuko dugu; zer egin beharko genukeen munduan, herrian edo elizan; pertsona garen neurrian, gure eginkizuna zein izango litzateke-

en. Aztertzen da zein den abadeen, mojen eta sekularren, jende arruntaren eginkizuna familian, politikan, kulturen, herrian, Elizan... Amaitzen dugu ikusten hori guztia egiteko baliabide nahikoa daukagun; zein talde, antolamendu daukagun. Hori guztia, betiere, Elizatik begiratuta.

Hasteko, kristautasunaren gaineko hausnarketa egiten dugu, eta, gero, kristautasun hori errealitatean praktikan jartzeko bideak aztertzen ditugu.

**Arantzazu tarteko, gure ibarrean badirudi badagoela erlijiorako interesa; baina praktikan, joera bestelakoa da, ezta?**

Arrasate ingurua erlijio krisiaren adierazle garbia da. Gizartean eta kulturen, orokorrean, arazoa badago, gizarte aberats eta kultura modernoa, alegia; eta Arrasate ingurua ere gizarte aberatsaren erakusle da. Bitxia da aberastasun hori kooperatibak zirela eta Eliza Katolikoaren doktrina sozialetik sortua dela. Elizak berak berba egiten du lanaz, lanaren bidez duintasuna irabazteaz, kirolaz, familiaz, hezkuntzaz... Ideia horiek garatuz, modernotasunean aberastasuna asko ugartu da, eta horrek ekarri ditu modernitateko ideia berriak: erlijioa ez dela sartu behar gauza sozial eta kulturaletan; eta erlijioa pribatua dela, bakoitzaren sentimenduei baino ez dagokiena. Hortaz, erlijioa bihurtu da bakoitzaren gorabehera partikularra. Ikusi dugu erlijio espresioak: taldeak, ekimen berriak, elizkizunak... asko moteldu direla.

**Bada biderik egoera horri buelta emateko?**

Horretan gabilta, eta garrantzitsua da, gai sozialetan bezalaxe, erlijio kulturen heziketa ona izatea. Ez umetako doktrina, baizik pertsona heldu moduan hori guztia sakontzea. Horregatik egingo dugu teologia ikastaroa, aztertzeko zer den sinesten duguna, zergatik sinesten dugun eta sineste horretatik zein ondorio ateratzen ditugun gure bizitza partikular, sozial, politikoa zein kulturalerako. Hori guztia sakonduz, gogoeta eginez eta elkarrekin hausnartuz hezteko garrantzitsua da krisi egoera horri, neurri batean, buelta emateko eta, batez ere, fedeari heldutasuna emateko. Fedea ez da umeen eta erretiratuen gauza bat, pertsona helduena baizik.



## kale inkesta

## Zortezko jokoetan parte hartzeko ohitura duzu? Noizbait zerbait irabazi duzu?

Antonio Bikuña  
Erretiratua  
Oñati

Normalean, ez dut ezertan jokatzeko. Bada, bidaiaren bat egiten dudanean, loteriako dezimo bat erosteko ohitura izaten dugu etxean. Halaber, ohitura delako, Gabonetako loteria ere erosten dugu.

Andoni Olalde  
Langilea  
Oñati

Astero lotoa egiteko ohitura dut. Halaber, Gabonetako zozketarako dezimo batzuk erosten ditut. Edozela ere, oraindik ez dut ezer irabazi. Ea, abenduko zozketan zorte apur bat gehiago izaten dudana!

Ana de Souza  
Etxekoandrea  
Oñati

Bai, ohitura dugu, baina ez handia. Normalean, astero, lotoa egiten du senarrak. Ohiturgatik, Gabonetako Gorteko dezimo batzuk erosten ditugu. Behin, gainera, 100 euro irabazi genituen.

Iñigo Gartzia de Kortazar  
Langilea > Oñati

Gure etxean, astero, lotoa egiten dugu, eguenean eta zapatuetan. Gainera, Gabonetarako dezimoak erosten ditugu, eta, aldika, ONCEko dezimoren bat ere. Edozela ere, oraindik ez gara aberastu.

## irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

## OÑATI

## &gt; Plazan jaietarako jarri zuten kioskoa, arriskutsu

Ama oñatiar batek haserre deitu digu, Foruen plazan jaietarako ipini zuten kioskoa lehenbailehen ken dezatela eskatzen, alaba handik jausi egin zelako: "Buruan sekulako kolpea hartu eta larrialdietara joan behar izan ginen. Medikuek esan zidan ez zela kasu berberengatik joan zitzaion lehenengo umea. Argi dago kiosko hori arriskutsua dela, hortaz, ken dezatela Udalak zer edo zer larriagoa gertatu baino lehen!"

## ARRASATE

## &gt; Apendizen Eskola atzeko aparkalekua, gaizki

Apendizen Eskola hizpide da azkenaldian. Bada, inguruko aparkalekua ere bai: "Etxebizitzak egiten daude han, eta sekulako zuloak egin dituzte zoruan. Euri asko dabilenean, zuloak urez betetzen dira eta askotan ez dira igartzen. Mesedez, bietako bat: edo erabiltzeko moduan ipin dezatela, edo erabiltzea debeka dezatela", diosku Arrasateko gidari batek.

## OÑATI

## &gt; Ahuntzak, ia errepedera jaitsita

Oñatiko gidari bat zur eta lur geratu zen joan den zapatuan, Elorregitik Oñatira sartu zenean autoarekin: "Autobideko zubi inguruan, hara non ikusi nituen lauzpabost ahuntz, belarretan lasai-lasai, ia errepedean bertan. Han hesirik ez zegoen. Ahuntz horien jabea non zebilen, bada, abereok zaintzeko?"

## usteak uste

Maier Uranga

## Balza eta bere animaliak

Liburu bazina, egunero irakurriko zintuzket, dudu barik. Barikuetako bisitarekin konformatu behar, ordea. Borroka garaia dela esan diguzu aste honetan. Izango ote da? Nik neuk ez dut sumatu horrelakorik asteburuan.

Urriak 12, Hispanitate Eguna. EHN ni eta, kafesnea atera didan zerbitzaria kenduta, beste inor ez lanerako planekin. Elosun, ganadu feria eta Donostiako Boulevardean Balza eta bere animaliekin zirkua.

Nahikoa da, aspertu gara, animalien espektakulua non nahi ikusteaz. Ez ote dago beste lekurik? Ez ote da nahikoa handia Arkaute jolasean aritzeko? Aldamenean duzue Espainia bestela, sekulako lur zatiak dituztela esan didate inongo ezertarako erabili barik. Lasai joan, jai giroan jarraituko dugu! Joan eta inoiz ez arte!

## zorroztailea



Elena Laka

## España, España!

"Banderak guztiok ordezkatzeko gaitu- Espainiako Gobernuaren ordezkariak, Paulino Luesmak, azpimarratu zuen bandera dela espainol guztiak batzen gaituen ikurra. Espainia bera eta bandera espainol guztion delako, eskusibitaterik gabe, eta aldi berean, guztion ikur."

El Diario Vasco &gt; 2007-10-13



Espainiako herritarrak batzen dituen ikurren bat aipatzeko, nik ez nuke bandera aukeratu. Eta baten orde, bi azpimarratuko nituzke: futbol selekzioa (*la seleccion*) eta Espainiako telebista kateak, publiko zein pribatuak.

Ze bandera, ba tira, zuk jakingo duzu, irakurle, nolako erakarmena sortzen dizun. Espainiako eskuma eta ezkeraren artean, ez dirudi ikur baketsua denik. Arrotz eta inposatzaile gertatu zaigu aspalditik piperpotoa, hainbeste, ezen Legoko fitxetan horia eta gorria bata bestearen ondoan ikusterik ez dugun jasan; hainbeste, ezen arropetan ere, horia eta gorriaren nahasmen txikiagertzen zela, ez genuen erosten. Gurean behintzat, (ia) gehienontzat ez da ikur bandera famatua.

Baina *la seleccion*-en partiduak? Zeinek ukatu Euskal Herriko kaleak husten direla bere partiduak ikusteko? Zeinek ukatu tabernetan elkartzen den jendetza

futbol hori ikusteko, eta lotsa sentitu barik, jokaldiak miresteko eta gaitzesteko? Gogoa pixka bat maki-llatuta, hori bai, euskaldun asko dagoela selekzioan eta animua merezi dutela, e.a. Futbola gustatzen zaigula-eta, eta horregatik ikusten dugula. Aitzaki-maitzaki. *La seleccion*-en partiduak futbol soil dira bandera hori-gorria trapu soil bat den moduan, hau da, bata ez da bakarrik futbola, bestea ez da bakarrik trapua.

Telebista espainola da espainiar guztien batasunaren beste eragilea. Halako garrantzia du Espainia kontzeptuaren hezurramitzean, ez dudala ulertzen Felipe II.ak nola eutsi zion inperioaren batasunari telebistatik gabe. Zer ez ote zukeen egingo telebistarekin! Ze, izango dugu hezkuntza sistema propioa, izango ditugu euskal komunikabideak, baina Espainiako telebistari esker, mundura Espainiatik abiatzen gara: Espainiako notizietatik, txutxu-mutxuetatik, kiroleatik, mapatik...

Espainiako botereak maisuki erabiltzen ditu futbola eta telebista aberria egiteko. Banderarena amu hutsa da. Bitartean, jarraitzaile ugari izan zituen joan den zapatuan *la seleccion*-en telebista partiduak, eta gaur gauean, *Mira quien baila-k*.

"Euskal Herriko kaleak hustu egiten dira 'la seleccion'-en partiduetan"

"Telebistari esker, mundura Espainiatik abiatzen gara"

## Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredaktoria Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Maier Uranga Oinarritzaile diseinua Goto Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazaila Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

## EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Oñatiaren Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.comARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.comPublizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



## Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



# Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13  
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**  
Aprendizen Eskola itxi egin dute, baina Udalak dio ez dagoela jausteko arriskuan > 10



> **BERGARA**  
Informatika ikastaroak egiteko aukera dago Udalaren, KZGunearen eta erretiratuen eskutik > 11



> **LEINTZ GATZAGA**  
Ludotekarako asmo berriak dituzte Gurel elkarteko gurasoek, eta lanean dabilta > 14

**BERGARA** > ELOSUKO MENDIKO GANADU FERIA

## Aurtengoan ere, Elosu jendez bete da mendiko ganadu feria ospatzeko

### SALTOKIAK

Mota eta produktu askotako hamaika saltoki ikusteko aukera egon zen Elosun

### GIRO POLITA

Goizean, ganadua; gero, herri bazkaria eta musika egon ziren

### MAIER URANGA > BERGARA

Urriaren 12an, barikua, Bergarako Elosu auzoan 19. Mendiko Ganadu Feria ospatu zuten. Asko izan ziren, eta txoko askotakoak, bertara gerturatu ziren gazte eta helduak.

Bergara eta Azkoitiko Udalek jarritako autobusak topera helduz zihozten bitartean, taldetxoak oinez zihozten, eta antolatzaileek propio prestatutako aparkalekuak goraino bete ziren.

Hamabiak ingururako, giro bikaina zegoen ferian. Euskal Herriko hainbat tokitako jendea erruz zebilen Elosun, urtero moduan, ganadu, artisautza eta musikaz gozatzen.

### GANADU-SALTZAILEAK

Ganadu mota asko zegoen Euskal Herriko feria zaharrenetakoan: behiak, ardiak, zaldiak, astoak, idiak...

Jose Luis Senperena Goiatzeko ganadu-saltzailearekin izan ginen hizketan. Hirugarren urtez bisitatzen zuten feria eta, berak esan zigunaren arabera, aurtengoan ganadu gutxiago sumatzen zuten arren, giro aparta eta eguraldia alde izatea azpimarratzen zuten.

### AZKOITIAK BAT BULTZATZAILE

Lehenengoz, orain 29 urte ospatu zen feria hori Elosun. Azkoitiar bat izan zen antolatzaileetako bat; bergararrei ideiare berri emandakoan, barrez erantzun zioten, arrakastarik izango ez zuela sinistuta; baina gero, askok lagundu zuten.



AZOKA Ganaduzaleak, abelburuak erakusten.

MAIER URANGA



MUSIKA Bazkaria ere egin zuten, ete gero, dantzaldia.

JOSETXO ARANZABAL



AIZKOLARIAK Larretxeak eta Mindegiak erakustaldia egin zuten.

JOSETXO ARANZABAL



HARRI-JASOTZAILEAK Elosukorta eta Goenatxo ibili ziren.

JOSETXO ARANZABAL

ONDAREA &gt; APRENDIZEN ESKOLA

# Aprendizen Eskola itxi egin dute, baina ez dago jaustear

Eguenean aurkeztu zuen Joseba Escribano adituak eraikinaren egoeraren gaineko txostena

Eraikina berreskuratzeko "interbentzio serioa" egin beharko litzatekeela dio alkateak

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Joan den egueneko Hirigintza Batzordean jakin zuten Aprendizen Eskolaren egoera "oso eskasa" dela. Hala jakinarazi dio ASTELEHENEKO GOIENKARIARI Ino Galparsoro alkateak. Edozelan ere, gaineratu du "jausteko arriskurik ez" duela, "okerrren dagoen lekua habetuta dagoelako".

Egoera horren aurrean, eraikinaren etorkizunaren gainean galdetuta, alkateak dio Aprendizen Eskola "berreskuratu gura bada, interbentzio serioa" egin beharko litzatekeela. Beraz, "ikusi" egin beharko dutela "zein aukera" duten leku horretarako. Gehitu du, gainera, Aprendizen Eskola ez dela Arrasateko Udalarena, SPRIrena baizik.

Urtea amaitzen denerako, Aprendizen Eskolaren etorkizuna zein izango den erabakiko dutela dio alkateak.

MUSIKA ETXE BERRIA

Alkateak dio Arrasateko Udalaren apustu argiena herrirako Musika Etxe berria egitea dela. Baina, Musika Etxea egiteko lekurik aproposena zein den erabaki barik du Udalak.

Azken legegaldiko proposamena Saiolanen egitea zen, baina hori ondo aztertu behar dutela dio Galparsorok: "Eraikinaren gaineko hainbat gauza argitu behar ditugu; han dirua sartu baino lehen, ondo ikusi behar dugu egoera zein den". Adibide moduan, alkateak nabarmendu du eraikin hura errekarren gai-



APRENDIZEN ESKOLA Saiolan eraikinaren ondoan dagoen Aprendizen Eskola txarto dago; arrakalak ditu.

ITSASO BEREZIBAR

nean dagoela, eta hori, gaur egun, legez kontrakoa dela.

OPORRETATIK BUELTAN

Aprendizen Eskolari dagokionez, oporretatik bueltan erakutsi zuen benetan egoera eskasengan dagoela. Orduantxe piztu zen alarma, hezetasunak eraginda,

lehen solairuko komunetan arrakalak azaldu zirenean eta zorua hondoratu egin zenean.

Eraikinaren erabiltzaileek (Arrasate Musikal, zarzuelako kideak eta josten ikasten dabil-tzanak) behin-behinerako utzi egin behar izan zuten hura, eta herriko bestelako leku batzuetara

aldatu behar izan dira, Montteron jauregira, adibidez.

Aprendizen Eskola 1939an eraiki zuten, Union Cerrajeraren babespean, Industri Maisutzaren gaineko ikasketetarako. 1943an, Jose Maria Arizmendiarrietak Eskola Profesionala sortu zuen.

ARRASATEKO UDALA &gt; DIRULAGUNTZAK

## Gizarte zerbitzuendako laguntzak onartu dituzte

Gobernuz Kanpoko Erakundeen artean banatuko du Udalak diru kopururik altuena: 100.000 euro inguru

U.M. &gt; ARRASATE

Gizarte zerbitzuekin lotutako dirulaguntzen banaketa onartu du azkeneko Tokiko Gobernu Batzarrak. Hain zuzen, lau arlotarako dirulaguntzen banaketa onartu du: Gobernuz Kanpoko Erakundeendako (100.000 euro); Arrasateko erretiratuen egoitzendako (63.000 euro); oro har, gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten talde eta erakundeendako (15.400 euro) eta diru-sarrera txikiak dituzten hainbat herritarrendako, haiei udal tasak ordaintzeko.

### Lagunduko diren hainbat proiektu

#### Gobernuz kanpoko taldeak

Euskal Fondona	29.000 €
GKE partzuergoa	15.500 €
Harreman (Mozañbik: enpresak laguntzeko)	7.000 €
AMSOGRA (Nikaragaua: dis-pentsario medikua)	6.500 €
Felix Iñurrategi Fundazioa (Pakistan: ikasteko beka)	6.000 €
AMS (Nikaragaua: gazte ezinduen integrazioa)	6.000 €
Gurutze Gorria (Bolivia: nekazariak laguntzeko)	2.000 €

#### Gizarte zerbitzuetan lanean

Nubi	1.000 €
ACABE	1.000 €
ATECE	1.000 €
ASFAMOGI	1.000 €
GAUTENA	1.000 €
Espetxe Pastoral	500 €

ETXEBIZITZA &gt; BABES OFIZIALEKOAK

## Babes ofizialeko etxebizitzak zozkatzeko irizpideak berraztertzen dabil Udalak

Planifikazio orokorra egin gura du Udalak, babes ofizialeko etxebizitzaren zozketak zela egin behar diren erabakitzeko

U.M. &gt; ARRASATE

Badira Arrasaten babes ofizialeko hainbat etxebizitza oraindik zozkatzeko zain daudenak. Hain justu ere, Gelman, babes-tutako 125 etxebizitza daude zozkatzeko; Uribarrin, 44, eta Zerrajeran, 108.

Bada, oraindik ezin da zehaztu noiz zozkatuko dituzten etxebizitza horiek. Ino Galparsoro alkateak azaldu digunez, Arrasateko lehengo udal gobernuak babes ofizialeko

etxebizitzak zozkatzeko baldintzen plegua onartu zuen. Orain, berriz, udal gobernu berria dago, eta haren nahia da, etxebizitzaren zozketekin lotuta, planifikazio orokorra egitea, zozketa horiek zela egin behar diren erabakitzeko. Galparsorok gaineratu du behin zozketak egiteko baldintzak udal gobernuaren kideen artean adostu eta gero zabalduko dutela prozesua jendearen baldintza horien berri eman eta herritarren iritzia batzeko.

Alkateak uste du datorren hileko osoko bilkuran aurkeztu ahal izango dituztela babes ofizialeko etxeak zozkatzeko baldintza berriak. Behin hori egin eta gero hasiko dira etxebizitza multzo konkretuen zozketak noiz egingo dituzten zehazten.

OBRAK

## Bi milioi euro pasatxo, igogailuak egiteko

U.M. &gt; ARRASATE

Feixalekutik Altamirara eta Makatzena auzora igotzeko igogailu publikoak eraikitzeko bi eskaintza jaso ditu Udalak, eta azkenean, Amenabar-Orona enpresen artean erabazteko enpresa-elkarteen eskaintza aukeratu du proiektua egiteko.

Aurrekontu potoloa dute igogailu bi horiek: bi milioi euro pasatxo. Izan ere, igogailuak eraikitzeaz gainera, Udalak onartu duen adjudikazioaren barruan, Amenabar-Orona enpresa-elkartea arduratu beharko da datozen 10 urteotako mantenuaz. Hori horrela, zatika finantzatuko dituzte lanok, datozen lau urteotan. Zatiarik handiena 2009an ordainduko dute, milioi bat euro pasatxo, hain justu ere.



ANTZERKIA Oñatiko Ikusi Makusi taldeak antzezlan egingo du bihar, martitzena.

ARTXIBOA

GIZARTEA > ERRETIRATUAK

# Erretiratuen kultur hamabostaldia, gaurtik

Pintura taldeak egindako kartela aurkeztuko dute gaur, eta astean hainbat ekitaldi izango dira

EDU MENDIBIL > BERGARA

*Adiskidetzeta* lelopean, gaur, astelehena, herriko erretiratuen kultur hamabostaldia hasiko da. Kultur Hamabostaldia iragarriko duen kartela aurkeztuko dute erretiratuen egoitzan, 18:30ean. Bihar, martitzena, Oñatiko Pake Leku erretiratuen elkarterko Ikusi Makusi taldeak *En dos pala-*

*bras: im-paciente* Boni Laskuraingo egoitzan. Emanaldia 18:30ean izango da. Eguaztenerako, berriz, jai-ekitaldi kulturala iragarri dute. Dantzariak, bertsolariak eta txistulariak arituko dira giroa alaitzen 17:30ean hasita, eta ondoren, merienda eta dantzaldia izango dira. Eguenean, erretiratuek egindako esku-

lan, margo, zeramika eta abarren erakusketa jarriko dute ikusgai, urriaren 21era arte.

**AZPITARTE, BAI; FERNANDEZ, EZ** Hamabostaldiko lehen hitzaldia Patxi Azpitarte bikarioak egingo du hilaren 19an, Miguel Altunan, 20:00etan. Bestalde, programan iragarrita zegoen Jonan Fernandez Baketikoko kideak ez du azkenik hitzaldia egiterik izango. Urriaren 24rako iragarrita zegoen Fernandezek hitzaldia.

IKASTAROAK > INFORMATIKA

## Hainbat tokitan informatika ikastaroak egiteko aukera

Bestalde, emakume langabeendako makina erreminta ikastaroa eskaintzen du Miguel Altunak

24 telefono zenbakian zehaztasun gehiago jaso dezakezue.

San Joxepe erretiratuen elkarteak informatika ikastaroak antolatu ditu aurten ere. Internet hasiera eta Excel programako ikastaroak izango dira, besteak beste, aukeran. Argibideak, Boni Laskuraingo egoitzan edo 943 76 30 09 zenbakian.


E.M. > BERGARA

Udaleko Enplegu Sailak langabeei zuzendutako informatika ikastaroa antolatu du. Windows eta Microsoft Word (hasiera) jorratuko dituzte azaroaren 7tik abenduaren 14ra. Ikastaroa 50 ordukoa izango da. Izenematea urriaren 26ra arte dago zabalik Udaleko Enplegu Sailean. Plaza mugatuak dira; argibideak 943 77 91 65 telefonoan.

Bestalde, Bergarako KZGunean informatika ikastaroak eskaintzen dituzte. Irizar jauregian, 2. pisuan, edo 943 76 73

**EMAKUMEENDAKO IKASTAROA**

Bestalde, Miguel Altuna institutuak bereziki emakume langabeei zuzendutako ikastaroa antolatu du, Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailaren laguntzarekin. Ikastaroa 355 ordukoa izango da, eta makina erreminta eta mekanizatuko jakintzak izatea komenigarria da ikastaroan parte hartzeko. Argibideak, 943 76 70 49 zenbakira deituta edo [formakuntza@imaltuna.com](mailto:formakuntza@imaltuna.com) helbidera idatzita.



INFORMATIKA Ikastaro eskaintza zabalago dago informatika ikasteko.

ARTXIBOA

OSPAKIZUNA > URTEURRENA

# Pol-Pol tabernaren 25. urteurrena ospatu zuten zapatuan lagunarteko bazkariarekin

Urte hauetan tabernan egindako lana eskertu zioten lagunak Dunixi Olabarriari, omenaldi xume batekin

lagunek zapatuko ospakizuna. Opari batzuen bitartez, tabernan egindako lana eskertu nahi izan zioten. Ondoren, lagunarteko giroan, ospakizun jai iluntzera arte luzatu zuten Pol-Pol tabernan urte hauetan txoko gustukoak aurkitu dutenek.

Bestalde, Pol-Polen ikuskizunek duten lekuaren erakusle, domekan, Oihulari Klownen bi saio izan ziren: umeendako ipuin kontalariak, batetik, eta helduendako antzerkia, bestetik.

**ERTZAINAK**

Ospakizunean parte hartu zutenek bazkarian eta ondoren izandako giro ona azpimarratu zuten arren, era berean, kexu bat ere helarazi digute: "Zibilez jantzitako ertzainak sumatu genituen gertu eta, euren asmoa jai hondatzea bazen ere, ez zuten lortu", azaldu ziguten.



BAZKARIA Ariznoa plazan, 130 lagun elkartu ziren ospakizunean. IRATI AGIRREAZALDEGI

> ERAKUSKETA

## 'Tratu txarren aztarnak' erakusketa kultura etxean

*Tratu txarren aztarnak* izenburuko erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena, Bergaran. Avaim elkarteak prestatutako erakusketa da, eta Udaleko Ongizate sailak ekarriko du Bergarara. Tratu txarren gainean umeek egindako marrazkiak izango dira ikusgai kultura etxean, azaroaren 7ra arte.

> ERLIJOA

## Santa Marinar, katekesi eskolak gaztetxoendako

Santa Marinar Haur Katekesiko ikasturte berria hasiko da oraingo astean. Bihar, martitzena, 17:17etik 18:15era, 1. eta 2. mailakoak Sierbetan elkartuko dira, eta eguaztenean, hilaren 17an, 3., 4., 5. eta 6. mailakoak, ordu berean. Argibideak, 943 76 11 98 telefono zenbakian.

Urte hauetan Pol-Pol tabernan lanean fin jardun duen Dunixi Olabarriari omenaldi xumea egiteko ere aprobeztatu zuten

ETXEBIZITZA &gt; IZENEMATEA

# Gaur zabalduko dute Uarkaldeko etxebizitza tasatuetarako izenematea

Udalak Lizaur kaleko 5.ean duen bulegoan egingo dute eskatzaileen erregistroa

Lehenengo 17 etxebizitza tasatuen zozketa abenduan edo urte hasieran egingo da

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Gaur zabaldu da Uarkalden eraikiko diren lehen 17 etxebizitza tasatuak eskuratzeko izenemate epea. Irailaren 26ko osoko bilkuran onartu ziren baldintzen arabera, etxebizitza horietakoren bat eskuratzeko interesa duten lagunak izenekin erregistro bat egingo da Udalak Lizaur kaleko 5. zenbakian duen bulegoan. Hortaz, izenak emateko hilabeteko epea zabaldu da, azaroaren 15era arte, hain zuzen ere.

Edozelan ere, etxe tasatuen zozketan parte hartu gura dutenek, izena emateko, alde aurretik hitzordua eskatu behar dute, 943 03 88 38 telefonora deituta. Bulegoa zabalik egongo da honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera, goizeko hamarretatik ordu bietara; martitzenetan eta eguenetan, arratsaldeko bostetatik zazpietara; eta zapatuetan, goizeko hamarretatik ordu batera. Halaber, bulegora joaten diren lagunak Uarkaldeko etxebizitza tasatuen planoak ikusteko aukera izango dute.

BALDINTZAK

Iraileko osoko bilkuran onartu ziren baldintzetan zehazten den modura, Uarkaldeko 17 etxebizitzetan zozketan parte hartzeko, eskatzaileek ezin izango dute inolako etxebizitzarik jabetzan edu-

ki, azkeneko bi urteetan. Halaber, eskatzailea edo bizikidetzaren unitateko kideetako bat Oñatin errolatuta egon behar da azken bi urteetan. Diru sarrerei dagokionez, baldintzetan zehazten den moduan, 2006ko errenta aitortzen aintzakotzat hartuta, eskatzailearen sarrerak 54.615 euro baino txikiagoak direla kontutan hartuko da. Gainera, etxebizitza tasatuaren titular izango diren bizitza-unitateko pertsona guztien sarrerak hartuko dira kontutan.

HIRU TALDE

Uarkaldeko 17 etxebizitza tasatuak hiru talderen artean zozketatuko dira: bi etxebizitza ezgaitasunen bat edo mugikortasun arazoak dituztenendako gordeko dira; beste bi etxe, hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familiendako; eta gainontzeko 13 etxeak kupo orokorrean zozketatuko dira. Etxebizitza tasatuen artean txikiena ia 64 metro koadrokoa da, eta handiena, 108 metro koadrokoa.

Prezioari dagokionez, etxebizitzarik merkeenak, beheko oineko A eta D etxeak, 186 mila euro kostatzen dira; garestiena laugarren solairuko B etxea da, eta 290 mila euro kostatzen da. Uarkaldeko etxebizitza tasatuak garajearekin salduko dira.



BULEGOA Lizaur kaleko 5. zenbakian Udalak duen bulegoan egingo dute eskatzaileen erregistroa.

MIREIA BIKUÑA

UKO EGITEAK

Abenduan edo urte hasieran egingo den zozketan etxebizitza eskuratu, baina adjudikazioari uko egiten dioten eskatzaileak Udalak bost urteren buruan egin ditzakeen zozketetatik kanpo geratuko dira.

Iraileko osoko bilkuran hartutako neurri horretatik kanpo geratuko da laugarren solairuko B etxea, 17 etxebizitza tasatuetatik garestiena delako.

JAIK &gt; BALORAZIOA

## Jaietako balorazio positiboa egin du Udal Kultura sailak

Arratsaldeko sokamuturrak luze iraun izanak kritikak eragin ditu

M.B. &gt; OÑATI

Eguraldia lagun izan da San Miguel eta Errosarixo jaietan. Hala, egitarauan jasotako ekintza guztietan, partaidetza zabalagoa da. Hortaz, Udal Kultur sailak jaien balorazio positiboa egin du.

"Aurtengo egitarauan jasotako berrikuntzek harrera ona izan dute", azaldu dute kultur

arduradunek. Auto klasikoaren erakusketak, gaztetxoendako parkeak eta zaldi heziketa erakustaldiak herritar ugari bildu zituzten. Halaber, Tirri Tarraren *Argi Beltz* izeneko ikuskizunean 1.800 lagun inguru bildu zen, eta Scura Splats valentziarren kale ikuskizunean ere herritar asko elkartu zen.

SOKAMUTURRA

Azken urteen antzera, sokamuturrak luze jotzeak herritarren kritika asko piztu ditu. Hala, Kultur sailak, aurrera begira, arratsaldeko sokamuturra laburtzeko aukera aztertuko duela esan zuen.

&gt; APARKALEKUAK

### Lehen ordu erdia doanekoa izango da Kalegoieneko eta kiroldegiko parkinetan

Irailaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak lurpeko bi aparkalekuak arautuko duen ordenantza. Bestek beste, ordutegia, arau-hauste eta zigorrak eta prezioak zehazten dira. Hala, kiroldegiko eta Kalegoieneko aparkalekuetan autoa uzteagatik, lehen ordu erdia doanekoa izango da, beti. Hortaz, aparkalekua 31. minutuan ordaintzen hasiko dira erabiltzaileak.

Urriaren 25ean egingo den osoko bilkuran onartuko du udalbatzak, autoa aparkalekuan uzteagatik ordaindu beharreko tarifak. Hala, bien bitartean, jaietan egin den moduan, bi aparkalekuak doanekoa izango dira.

&gt; ELKARTASUNA

### Gaur hasiko da elkartasun taldea Argentinara bidaltzeko materiala batzen

Udako etenaren ondoren, gaur bertan ekingo dio Argentinara-ko Elkartasun taldeak materiala biltzeari. Elkartasun taldeko kideak eguaztenetan eta eguenean egoten dira lokalean, arratsaldeko seiak eta erdietatik, zortziak eta erdietara. Halaber, Bidebarrietako kaleko 24. zenbakian aurrean dagoen edukiontzi zuria erabil daiteke gaurtik hasita.

Argentinarako material biletza zerbitzua etenda egon den bitartean, 18. edukiontziak geratu eta bidaltzeko aukera izan dute. Arropak, eskola materiala, jostailuak eta beste batu ziren 18. edukiontzian.

&gt; KIROLDEGIA

### Kiroldegira tornoetatik sartzeko, bazkide txartela erabili behar da derrigorrez

Joan den asteko egubakoitzetik, Zubiko kiroldegiko instalazioetara sartzeko derrigorrezkoa da bazkide txartela erabiltzea. Kiroldegiko sarrera lekuan dagoen tornua erabiltzeko moduan dago dagoeneko. Hala, igerilekua edo kantxa aldeko zerbitzuak erabili gura dituzten herritar guztiek bazkide txartela erabili beharko dute ateak zabaltzeko.

Halaber, Zubikoan ematen diren ikastaroetako ikasleek ere bazkide txartela erabili beharko dute. Txartela erabili gura ez duena hartz-markarekin sar daiteke kiroldegira. Hartz-marka erabiltzeko, bulegoetatik pasa behar da.



SEINALEA Eskoriatzako Udalak Gellao auzoa non dagoen adierazten duen seinalea jarri du Bedarreta auzunean. MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA > BASERRIAK

## Baserrien izenekin seinaleak jarriko dituzte

Gezi itxurakoek baserria non dagoen adieraziko dute; beste batzuk baserrian bertan jarriko dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Aretxabaleako baserri guztien aurrealdean seinaleak jarriko dituzte izenekin. 23.000 euroko diru gastua dauka aurreikusita Udalak lan horretarako. Aurrekontua jaso zain dago azken erabakia hartzeko, baina azaro inguruan jartzen hasiko dira.

IZEN OFIZIALAK

Jolas, Electrotalleres Zarautz SA enpresak egingo ditu seinaleok, eta azken aurrekontuaren zain egon arren, azaro inguruan jartzen hasiko diren ustea du Martin Garai udaltzain buruak. Egurrezkoak izango dira, eta Udalaren armarria eta Debagoiena azaldu-

ko dira, baserriaren izenarekin batera. Batzuek gezi itxura izango dute eta berdeak izango dira; horiek baserria baino lehen jarriko dituzte, non dagoen adierazteko. Beste batzuk marroiak dira, eta baserrian bertan jarriko dituzte. Seinaleetan, izen ofizialak agertuko dira, hau da, orain dela bi urte Udalak egindako toponimia azterketan jasotakoak. Datorren urtean, ostera, auzoen seinaleak jarriko dituzte.

ARETXABALETA > LANA

## Bertan behera Aluminios de Precision lantegiko greba

Ados jartzeko lehen pausoak eman dituzte, baina idatziz jaso gura dute erabakia langileek

M.A. > ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 8, hasi zuten greba Aretxabaleako Aluminios de Precision lantegiko langileek, eta eguaztenean bukatutzat eman zuten, zuzendaritzarekin adostasunerako bidea hartutakoan.

DIRUA JASOTZEKO ABALA

Enpresa Burgosera eroateko erabakia dauka hartuta Aluminios de Precision lantegiko zuzendaritzak -martxoan planta bat eta uztailean bestea-, eta adostutako indemnizazioak jasoko dituztela ziurtatu gura dute langabezia geratuko diren 50en bat langilek. Lan egindako urte bakoitzeko, 45 egun ordaintzea onartu zuen zuzendaritzak, baina langile-

ek eskatu zioten banku abala dirua kobratuko zutela bermatzeko. Enpresak, horren ordez, zor agiria proposatu zien, baina langileek, ezezkoa eman, eta greba hasi zuten astelehenean.

Hainbat bilera egin zituzten hurrengo orduetan, eta eguaztenean, hilak 10, adostasuna lortzeko lehen pausoak eman zituzten bi aldeek. Hori horrela, langileek greba bertan behera uztea erabaki zuten. Hitzartutako dirua kobratuko duten ziurtasuna jaso zuten, abokatuek abala aztertu eta gero. Dena dela, azken adostasuna idatziz jaso gura dute langileek, eta hori zuzendaritzako kideak Mexikora egiten dabil-tzan bidaiatik bueltan izango da, azaroan, seguru asko.



LANGILEAK Hiru egunetan egon dira langileak lantegi aurrean. MIRARI ALTUBE

ESKORIATZA > KULTURA

## Hilaren 20an hasiko dira berriro munduko dantzen ikastaroak

Hileko hirugarren zapaturo egingo dute, kiroldegiko gimnasioan, 17:30etik 20:00etara

Gura duten saioak ordaindu eta joateko aukera izango dute interesatuek

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Hurrengo zapatuan, hilaren 20an, munduko dantzen saioen eskolak hasiko dituzte berriz Eskoriatzan, udako denboraldiak iraun duen bitartean ikastaroak geldirik izan dituzte-eta.

Munduko dantzen ikastaroa pilotalekuko gimnasia gelan egingo dute, hilean behin. Hileko hirugarren zapatuan egingo dute, arratsalde, 17:30etik 20:00etara bitartean, hain zuzen ere.

AMUSKAK ANTOLATUTA

Eskoletan esku hartzeko, bost euro ordaindu beharko dira saio bakoitzeko, eta saio bakoitzean

bertan. Hori da jarri duten baldintza bakarra; ez dago besterik. Edozeini zabalik dago ekimena, eta antolatzaileek azpimarratu dute ez dagoela dantzan jakin beharrik eta interesatuak edozein momentutan sar daitezkeela taldean.

ARETXABALETA ETA GATZAGARREI

Are gehiago, Amuska emakumeen elkarteko kideen esanetan, "irakatsiko dituztenak dantza oso errazak izango dira, eta dantza bakoitza berria izango da guztiendako. Hortaz, zerotik hasiko gara guztiok. Ez arduratu horregatik, helburua da guztiok zapa-

tu arratsaldeak ahalik eta ondoen pasatzea eta dantzan apur bat gehiago ikastea".

Eskoriatzako Amuska emakumeen elkarteak da jarduera horren antolatzailea; eta, oraingo ikasturtean, Aretxabaleta eta Leintz Gatzagara ere zabaldu gura dute deialdia, taldea handitu dadin. Hala, herri horietako emakumezko eta gizonezkoek ere gonbitea egin diete taldera batu daitezten. Hain zuzen ere, Amuskako esan digute "zenbat eta talde handiagoa, orduan eta dibertigarriagoa" izango dela.

IAZKO ESPERIENTZIA, POSITIBOA

Iaz hasi ziren Eskoriatzan eta Elgetan dantza horiek irakasten, eta bi herrietan oso gustura gelditu ziren esperientziarekin. Hala, Eskoriatzan, errepikatzea erabaki dute.

Ikastaro horien irakaslea Patxi Montero arrasatearra da. Aspaldi honetan, oso sartuta dabil munduko dantzen alorrean, eta gustura dabil dantzari lanetan.

Ikastaroan esku hartu gura dutenek Elbiri deitu beharko diote (943 71 46 52).

> ARETXABALETA

### Basotxokoek Salamancara irteera egingo dute

Aretxabaleako Basotxo erretiratuen elkarteak Salamancara hiru eguneko irteera antolatu du. Martitzen edo eguaztenean eman behar da izena Basotxoko bulegoan, 10:30etik 12:00etara bitartean. 40 lagunetik behera apuntatzen badira, ez dute egingo.

## BASABE jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 77 07 94  
Aretxabaleta

LEINTZ GATZAGA &gt; UMEAK

# Ludotekari probetxu handiagoa atera gura diote aurten gurasoek

Umeek ludoteka jolas egiteko baino gehiagorako erabil dezaten gura dute

Dagoeneko ideia batzuk badituzte, eta horietaz hausnartuko dute Gurelekoek

LEIRE KORTABARRIA &gt; GATZAGA

Ikasturtea hasi berri da ludotekan, eta Gurel guraso elkarteko kideak badabilta lanean ludotekari probetxu handiagoa ateratzeko.

Hala, datorren astean ludotekako begiralearekin batzartzekoak dira, egon daitezkeen aukerataz berba egiteko. Dagoeneko badituzte ideia batzuk, Gurel elkarteko kide Eguzkiñe Alberdi dioskun moduan: "Umeek ludoteka modu jarraian erabiltzeko moduko aukerak landu gura ditugu. Hala, adibidez, koadro bat zelan mar-



UMEAK Gatzagako ume talde bat, egubakoitz arratsaldean jolasteko gertu.

GUREL

gotzen den ikusiko dute, pausoz pauso. Oraingoan, zenbat ume dabilzan, zein talde egin daitezkeen... begiratzen gabiltza".

Alberdik dioenez, ume askok eskolatik kanpoko ekintzak egiten dituzte, baina horrek ez du esan gura ludoteka gutxiago era-

biliko denik: "Negurako irtenbide bikaina da, eta Gatzagan badaude ume dezente, gainera".

HERRIKO UME GEHIENAK

Ikasturtea astelehenean hasi zuten. 16:30etik 18:30era, ludotekan batzen dira umeak begirale-

arekin, eta gero, beste ordu bete, liburutegian. Gatzagako ume gehienek ematen dute izena. Gainera, adin tarte zabala hartzen du ludotekak: 2. mailatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara bitartekoak joaten dira hara.

ELGETA



ZEZILIO TOTRIKAGUENA

## Elgetarrena, Mendaroko lehiaketako tortilla goxoenen artean

Hilaren 10ean, eguaztena, fin aritu ziren lanean Elgetako Nati Arrieta eta Irene Bolinaga. Debabarrenaren erretiratuaren elkarrekin Mendaroko egindako tortilla lehiaketan hartu zuten parte, eta tortilla goxoa gertatu zuten, benetan, lehiaketako onenen artean gelditu baitzen.

Lehenengo saritik gertu geratu da Elgetako

bikoteak egindako patata tortilla, izan ere, lehenengo puntuaketa hiru tortilla gelditu ziren berdinduta, tartean, Nati Arrieta eta Irene Bolinagarena.

Lehenengo saria erabakitzeko, epaileek berriz dastatu zituzten hiru tortillak, eta Mutrikuko egindakoari eman zioten lehenengo saria.

ARAMAIO

## Zuiako II. Orri-puntu Lehiaketa abian da

Orri-puntuak aurkezteko epea zabalik dago urriaren 26ra arte

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Orri-puntu edo liburu markagailuak folioan edo kartoi mehe zuri batean aurkeztu behar dira. Neurriari dagokienez, zorrotzak izango dira: 4,5 x 21 zentimetro izan behar dituzte, eta bestelako neurriak ez da onartuko.

Lehiakide bakoitzak hiru lan aurkeztu ahaliko ditu. Edozein liburutegitan, udal bulegoan edo Zuiako Koadrilako bulegoan utzi behar dira, eta honako lelo jarri beharko zaio: *II. Orri-markagailu Lehiaketa. Zuiako Koadrila*. Kartazal horretan, beste kartazal bat sartu beharko da, eta hor idatzita egon beharko da lehiakidearen izena, bi abizenak, jaiotze data eta helbidea. Irabazleen izenak Zuiako Koadrilako webgunean ipiniko dituzte azaroaren 26an.

ANTZUOLA

## Ciudad Juarezekoek berbaldia egingo dute

Azaroaren 8an izango da hori, ibarreko hainbat taldek antolatuta

AINTZANE IRIZAR &gt; ANTZUOLA

Mexikoko Ciudad Juarez, azkeneko urteetan, ehunka emakume bortxatu eta hil dituztela salatzen kanpaina antolatu dute, Elkarheitzaren proiektuaren barruan, Debagoieneko Gobernu Kanpoko hainbat Erakundek, tartean, Anelkarrek. Nuestras Hijas de Regreso a Casa elkarrekin bi kide izango dira azaroaren 8an Antzuolan; berbaldia egingo dute alabak galdu dituzten bi amak.

Beste hainbat ekitaldi ere antolatuko dituzte Debagoienean azarorako. Kanpainaren helburua da debagoienarren elkartasuna lortzea, bortxaketa eta hilketen errudunak zigor barik gera ez daitezten eta emakume gehiago hil ez dezaten.

# Kirola



> **FUTBOLA**  
Atzoko lehia irabazita, UDA bigarren dago sailkapenean > 16



> **ESKUBALOIA**  
Ford Mugarrik aste bukaerak bi norgehiagokak irabazi ditu > 19



> **SASKIBALOIA**  
Eskoriatzako neskek erraz irabazi zuten zapatuan > 20



> **XAKEA**  
Aitor Alcaidek Alejandro franco menderatu zuen egubakoitzean > 21

ARETO-FUTBOLA > DENBORALDI BERRIA

## Bailarako areto-futboleko zazpi taldeek hasi dituzte txapelketak

Aretxabaletako taldeak talde bakarradu lehian, Gipuzkoako hirugarren mailan jokatzen duena

Eskoriatzak eta Aloña Mendik aldiz, hiruna talde dituzte Gipuzkoako eta Euskadiko maila ezberdinetan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Ibarreko areto-futboleko talde gehienek orain hiru aste bukaera hasi zituzten liga txapelketak. Guztira, zazpi talde lehiatuko dira Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan.

Eskoriatza Kirol Elkarteak hiru talde ditu oraingo denboraldian, eta horietatik bi senior mailakoak dira. Talde batek Euskadiko Txapelketan jokatzen du. Senior mailako bigarren taldea, gertutasunagatik, Arabako Federazioan dago izena emanda; hortaz, Arabako Ohorezko ligan jokatzen du. Bestalde, Eskoriatzako gazte mailako taldeak, besteak beste, Kantabria, Errioxa eta Nafarroako taldeen aurka jokatuko du oraingo denboraldian.

Aloña Mendik beste hiru talde ditu: Gipuzkoako lehenengo mailan jokatzen duen senior mailako taldea, gazte mailakoa eta oraindik liga txapelketa hasi ez duen kadete mailako taldea. Asier Santosek zuzentzen duen taldea aste bukaeran hasiko da lehian.

Aretxabaletak, aldiz, talde bakarra izango du jokoan: UDA-Izotz taldeak Gipuzkoako hirugarren mailan jokatzen du.

**ESKORIATZA**

Euskal Ligan jokatzen duen Eskoriatzako hirugarren jardunaldiko partidua jokatu zuen atzo arratsaldean, Intxaurtxueta kiroldegian, eta Antonio Regañok zuzentzen duen taldeak ligako hirugarren lehia galdu zuen (1-4).

IBARREKO TALDEAK

**ALOÑA MENDI**

- > Gipuzkoako lehenengo senior maila.
- > Gipuzkoako gazte maila.
- > Gipuzkoako kadete maila.

**ESKORIATZA**

- > Euskal Ligako senior maila.
- > Arabako Ohorezko senior maila.
- > Gipuzkoako gazte maila.

**UDA**

- > Gipuzkoako hirugarren maila.

Hasieratik jarri zitzaion aurka markagailua etxeko taldeari. Eskoriatzarrek erasoan galdutako bi baloi aprobetxatu zituen Euskalduna taldeak golak egiteko. Hortaz, Eskoriatzak uste baino huts gehiago egin zituen, eta atsedenean, 0-3 ziren atzetik markagailuan.

Antonio Regañoren taldeak joko hobea egin zuen bigarren zatian. Partidua oso zail zutela ikusita, aurrera egiteko erabakia hartu zuten. Hala, bost gol aukera sortu zituzten etxekoek. Baina gola lehia bukatzeko zortzi minutu falta zirenean lortu zuen Cesar Gomezek. 1-3koarekin ez zuten etsi, eta, bigarrena egiteko aukerak izan arren, Euskalduna taldeak borobildu zuen markagailua laugarren golarekin.

Atzoko porrotarekin, Eskoriatzako taldeak denboraldian jokatutako hiru partiduetatik galdu ditu. Hala, sailkapeneko azken tokian dago taldea: "Momentuz, etxean jokatutako bi partiduetatik eta kanpoko bakarra galdu ditugu. Iaz ere asko sufritu genuen mailari eusteko", esan zigen taldeko entrenatzaileak. "Edozelan ere, emaitzak iritsiko dira. Entrenamenduetan egiten dugun lanaren emaitzak ikustea falta da. Denboraldiak aurrera egin ahal, partiduetatik irabazten hasiko gara. Ziur nago", azpimarratu zuten Antonio Regañok.

Euskal Ligako laugarren jardunaldian, Lagun Onak taldearen aurka jokatuko du Eskoriatzak.



KONTROLA Eskoriatza taldeko jokalaria Bitxor Carballeares, aurkaria atzean utzi nahian.

JOSETXO ARANZABAL

### Aloñako helduen taldeak ligako lehen garaipena lortu du

Aloñako senior mailako taldeak denboraldiko lehen garaipena lortu zuen hirugarren jardunaldian. Santi Bernalek zuzentzen duen taldeak 8-5 menderatu zuen Hondarribiako Bar Ignacio taldea. Hasieratik agindu zuten markagailuan etxekoek. Hala, atsedenean, 4-2 ziren aurretik. Iban Agirrezabal (3), Erik Garcia (2), Jon Goñi (1), Iker Aranburu (1), eta Unai Saiz (1) izan ziren golegileak.

Bestalde, markagailu berberarekin, 8-5, galdu egin zuen Aloñako gazte mailako taldeak Donostian, Deutsche Schule taldearen aurka.



Aloñako jokalaria, bat zapatuko lehiako une batean.

JOSETXO ARANZABAL

PREFERENTE MAILA > MONDRA-ZUMAIAKO

# Denboraldiko lehenengo lehia galdu zuen Mondrak zapatuan

MONDRA  
**1-3**  
ZUMAIAKO

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE  
Seigarren jardunaldian iritsi da Mondraren lehenengo porrota; zapatuan, Mojategin jokaturako lehia, etxeko taldeak ezin izan zuen Zumaiako gainditu eta 1-3 galdu zuen. Partidu amaieran epailearen erabakiekin desadostasunak egon ziren arren, partiduaren nondik norakoan ez zuten eraginik izan haren erabakiek.

**HASIERAN, INDAR BARIK**  
Motel, indar barik, atera ziren etxeko jokalariek zelaira; hala, 2. minutuan izan zuen Zumaiakok gola egiteko lehenengo aukera garbia, baina 20. minutuan iritsi zen Zumaiakoren gola.

Atsedena baino lehenago, Mondrak lehia berdintzeko aukerak izan zituen, batez ere, Iker Lopezen eskutik, baina jokaldiak ezerezean geratu ziren.

Bigarren zatian, Gordobilek Murua eta Aranbarri atera zituen berdegunera, eta haiek bizitasuna eman zioten etxeko jokoari. Lehenengo gol aukera Laspiurrek izan zuen; kórner baten ondoren, baloia buruz gora bota zuen. Berdinketa 24. minutuan heldu zen: Keixik kórnera atera eta Iker Lopezek, buruz, baloia sareetan sartu zuen.



LOPEZ Irudian, Iker Lopez baloiarekin; Lopezek sartu zuen zapatuan Mondraren gola.

JOSETXO ARANZABAL

**EPAILEA NAHASTU EGIN ZEN**  
Handik aurrera, lehia guztiz nahastu zen. 35. minutuan, Mondrako arean, jokaldi nahasi baten ondoren, epaileak Zumaiakok sartutako gola ontzat eman zuen; baina marrazainak bandera altxa

zuen. Hala, Maikel etxeko jokalariek protesta egin zuen eta, ondorioz, egotzi egin zuen epaileak. Azkenik, epaileak marrazainarekin berba egin ostean, gola ezeztatu egin zuen. Minutu gutxira, baina, penaltia adierazi zuen epai-

leak Zumaiakoren alde. Penaltiz egin zuten bigarrena, eta hirugarren gola azkeneko minutuan egin zuten zumaiarrek, etxeko atezainaren huts baten ondoren. Hiru puntuek, hortaz, Mojategitik alde egin zuten zapatuan.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Ordizia	16	6
2. UDA	12	6
3. Hernani	11	6
4. Euskalduna	11	6
5. Real Union	10	6
6. Zumaiako	10	6
7. Trintxerpe	10	6
8. Aloña Mendi	9	6
9. Mondra	9	6
10. Berio	9	6
11. Aurrera	8	6
12. Zestoa	7	6
13. Vasconia	6	6
14. Eibartarra	5	6
15. Hondarribia	5	6
16. Idiazabal	4	6
17. Anaitasuna	4	6
18. Touring	4	6

Emaitzak	
Real Union-Vasconia	2-1
Hondarribia-Aloña Mendi	1-1
Berio-Zestoa	1-2
Ordizia-Idiazabal	2-0
Euskalduna-Anaitasuna	2-0
UDA-Eibartarra	2-1
Aurrera-Hernani	2-1
Touring-Trintxerpe	1-2
Mondra-Zumaiako	1-3

Hurrengoak	
Zumaiako-Vasconia	
Aloña Mendi-Real Union	
Zestoa-Hondarribia	
Idiazabal-Berio	
Anaitasuna-Ordizia	
Eibartarra-Euskalduna	
Hernani-UDA	
Trintxerpe-Aurrera	
Mondra-Touring	

### BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA	
Martutene-Bergara	1-3
Ilintxa-Antzuola	1-4

BIGARREN ERREGIONALA	
Anaitasuna-Elgeta	5-1
Zestoa-UDA B	1-5
BTLS-Mondra	5-1

EMAKUMEZKOAK	
Bergara-Arizmendi	6-0
Mondra-Lazkao	3-0
BTLS-Mutriku	3-1
Arizmendi-Ordizia	11-3

OHOREZKO GAZTEAK	
Burumendi-Mondra	1-0
Bergara-Ordizia	6-1
Aloña Mendi-UDA	1-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK	
Bergara-Aretxabaleta B Arizmendi	2-1

OHOREZKO KADETEAK	
Sanse-Aloña Mendi	3-3
Ordizia-Bergara	2-4

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK	
Ilintxa-Arizmendi	6-1
UDA B-Bergara B	11-0
Arrasate	atsedena

KADETE NESKAK, F11	
Lazkao-Aloña Mendi	3-0
Arizmendi	atsedena

KADETE NESKAK, F8	
Euskalduna-Bergara	0-3

PREFERENTE MAILA > UDA-EIBARTARRAK

# Gogor lan eginda lortu zuen garaipena UDAk

UDA  
**2-1**  
EIBARTARRAK

**A.E.** > ARETXABALETA  
Gogor egin behar izan zuen lan atzo UDAk hiru puntuak lortzeko. Oraindik ere, Igor Arenazaren taldeak ez dio aurtengo denboraldiari neurria hartu; zelai erdian jokoa sortzea falta zaio. Kontuak kontu, atzoko partiduan garaipena eta hiru puntuak lortu zituzten; modu horretan, sailkapene-

ko bigarren postuan jarri dira aretxabaletarrak.

**JOKALARI BAT GEHIAGO**  
UDAREN lehenengo gola Arkaitz Garaik egin zuen, 20. minutuan. Area kanpoko falta bidez, gol ederra lortu zuen UDAko atzelariak.

Bigarren zatian, gauzak gehiago nahastu ziren: 75. minutuan, epaileak Eibartarrak taldeko Mutiloa kanporatu zuen. Baina, gauzak alde jarri beharrean, okertu egin ziren etxekoentzat, hurrengo jokaldian, penalti bidez berdindu egin zuen eta lehia Eibartarrak taldeak. Bigarren gola, garaipenera, alegia, 88. minutuan lortu zuen Igor Arriagak.



LEHIA Igor Arriaga, Eibartarrak taldeko bi jokalarirekin lehia.

JOSETXO ARANZABAL





"Itolarririk gabe."



"Ordaindu ahal dudanera egokitzen dena."



"Erraza izan dadila."

# Non dago aldea?

## Zure neurriko finantzaketa eskaintzean.

Zuri egokitzen zaizun kuota. Egoeraren arabera aldatu ahal izango duzuna. Interes-tasak gora eginez gero, muga izango duena. Hitz batean: interes-tasa finkoa, inolako ezustekorik izan ez dezazun! Hipoteka kontratatzean, zuk zeuk erabakiko duzu nolakoa nahi duzun izatea. Inolako itolarririk gabe, behar duzun epearekin.

Eta, gainera, **Etxebizitza Zerbitzuaren** aholkularitza izango duzu; laguntza jasoko duzu prozesu osoan barrena: izapideak egitean, finantzaketa- eta zerga-kontuetan... beti laguntzeko prest; hasi eta buka.



**ETXEBIZITZA-ZERBITZUA**  
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

zer nahi duzu bihar?



**Karaoke Ikuskizuna**

**OÑATIKO GAZTELEKUAN**

**Urriaren 20 eta 21ean**

**Urriak 20an:**


1.saioa: 16:30ean  
2.saioa: 17:45ean  
3.saioa: 19:00etan

**Urriak 21ean:**

1.saioa: 16:00etan  
2.saioa: 17:10ean  
3.saioa: 18:10ean  
4.saioa: 19:10ean

**Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!**

BABESLEA



gaztetxo  
elkartea  
club juvenil

ANTOLATZAILEA

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENENGO MAILA > FORD MUGARRI

# Urola eta Lea Corazonistas taldeen aurka irabazi du aste bukaeran Ford Mugarrik

Oraingoaz, zortzi partiduetatik zazpi irabazi eta bat berdindu dute

FORD MUGARRI

**27-25**

LEA CORAZONISTAS

**Ford Mugarri** > Igor, Asier, Xabi (3), Jonan (3), Peio (3), Arkaitz (3), Jorge (2), Iker, Nestor (11), Jokin (2), Kepa (2) eta Josu.

**Lea Corazonistas** > Saez, Uribe, Rubio, Carrasco (1), Otxoa, Lopez de Susoaga (1), De los Ojos (5), Ruiz (6), Cortes, Acha (6), Cruz (1), Berrobi (3) eta Altuna (2).

**Markagailua bost minuturo** > 1-2, 3-5, 5-7, 6-9, 9-10, 11-11. Atsedena. 15-13, 17-15, 19-19, 22-23, 24-25, 27-25.



ERASOA Argazkian, Ford Mugarri taldeko Josu Herrero hegaletik jaurtiketa egiten.

JOSETXO ARANZABAL

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Aste bukaera borobila izan da Ford Mugarri taldearendako. Urriaren 12ko zubian jokaturako bi norgehiagokak irabazi egin ditu; egubakoitzean, Zumarragan jokatu zuten Urola taldearen aurka (26-30), eta atzo, Iturripen, Gasteizko Lea Corazonistas taldearen aurka (27-25). Iturripen jokaturako partidua Zumarragako baino gogorragoa izan arren, puntuak Arrasaten geratu ziren. Hala, jokaturako zortzi jardunaldietatik,

Ford Mugarrik zazpi garaipen, eta Basauriren aurkako berdinketa erdietsi ditu.

**LEA CORAZONISTAS**

Atzo goizean Iturripen jokaturako lehiako lehen gola etxeko taldeak egin zuen arren, lehenengo zatiko

minuturik gehienetan arabarrek agindu zuten markagailuan. Hala, penalti puntutik lortutako golei esker jarraitu zuten etxekoek partiduan.

Lea Corazonistas taldeak, gehienez, lau goleko errenta izan zuen lehen zatian, 6-10, 21. minu-

tuan. Bada, arrasatearrak ez ziren kokildu eta, 4-0eko partzialari esker, lehia berdindu zuten (10-10), atsedenerako hiru minutu falta zirela. Azkeneko minutuetan, lehia parekatua izan zen. Hortaz, aldagelatarako bidea hartu zutenean, berdinketa zegoen (11-11).

**BIGARREN ZATIA**

Bigarren zatian, jokoa asko nahastu zen. Epaileek bi taldeetako jokalaririk asko bi minutuz egotzi zituzten. Hala, minutu askotan, bi taldeek lau eta bost jokalarirekin jokatu zuten. Edozelan ere, bien arteko lehia gogorra izan zen.

Lehenengo ordu laurdenean, Beñardo Balerdiren taldeak agindu zuen markagailuan; hiru goleko errenta ere izan zuten etxekoek (16-13). Bada, 17. minutuan, Arrasateko jokalaririk Jonan Eskibelet txartel gorria ikusi zuen, eta, hurrengo jokaldian, Arkaitz Masip egotzi zuten epaileek. Hala, etxeko taldea lau jokalarirekin geratu zen, eta arabarrek markagailuan aurrea hartzeko aprobetxatu zuten (22-24). Handik aurrera, lehia asko berotu zen. 25. minutuan, berdinduta zeuden (25-25).

Azken bost minutuetan, Lea Corazonistas taldeak ez zuen golik egin. Arrasatearrak 26-25 aurreratu ziren, eta arabarrek berdinketa lortzeko aukera izan zuten; bada, pibotari baloiak eskuetatik ihes egin zion. Kontraerasoan, Peio azkeneko gola egin zuen.

**UROLA-FORD MUGARRI**

Atzoko partiduen aurretik, Arrasateko taldeak zazpigarren jardunaldiko lehia jokatu zuen Zumarragan, Urola taldearen aurka. Defentsa sendoa eginez, partidua amaitzeko hamar minutu falta zirenean, bederatzi goleko errenta zuten arrasatearrek. Une hartan, etxeko taldeak presioa egin zuen kantxa osoan, eta abantaila murriztea lortu zuen.

LEHENENGO MAILA > BERGARA

## Joko hobearrekin, baina bi lehiak galdu ditu Bergarak

Bizkaiako Askartza eta Basauri taldeen aurka jokaturako bi jardunaldiak galdu ditu Josetxo Muniategiren eskubaloitza taldeak

**EGUBAKOITZA**

Aste bukaerako lehen partidua Leioako Askartza taldearen aurka jokatu zuten bergararrek egubakoitzean. Labegaraitan jokaturako norgehiagoka galdu egin zuten etxekoek (26-33). Josetxo Muniategiren taldeak ez zuen irabazteko aukerarik izan, baina lehia gustura bukatu zuten egindako lanarekin. "Derbian emandako itxura asko hobetu genuen egubakoitzeko partiduan. Kontutan hartu behar da Askartza talde indartsua eta azkarra dela", esan zigun entrenatzaileak. "Edozelan ere, pozik nago taldeak egin duen lanarekin. Gogor entrenatzen jarraituko dugu, aurretik 22 lehia geratzen dira eta. Aste bukaeran, Urdaneta-aren aurka jokaturako dugu".

**ZAPATUAN, BASAURIN**

Basaurin jokatu zuen Bergarak lehenengo mailako zortzigarren jardunaldia. Lehenengo zatiko aurreneko hamar minutuak oso parekatuak izan ziren (4-4). Bada, atsedenean aurretik, hogei minututan, Bergarako taldeak gol bakarra egin zuen, eta etxekoek, 11 gol. Horregatik guztia, atsedenean, etxekoak ziren nagusi (15-5).

Edozelan ere, bigarren zatian, Bergararen jokoa asko hobetu zen. Markagailuak 22-18 erakusten zuenean, Muniategiren taldeak errenta hiru golera jaisteko aukera izan zuen; bada, ez zuten lortu. Handik aurrera, Basauririk hobetu jokatu zuen erasoan, eta ez zuen arazorik izan norgehiagoka irabazteko.

> EUSKADIKO TXAPELKETA

### Aloña Mendiko neskek berdinketa lortu zuten denboraldi berriko lehenengo lehia

Etxeko neskek urduri atera ziren kantxara, eta horrek eragina izan zuen azken emaitzean; Muskizen aurkako lehia, 19-19 egin zuten oñatiarrek. Denboraldiko lehenengo lehia izateaz gain, maila berri batean ari dira jokatzeko Aloñakoak; hala ere, etxekoek talde sendoa direla erakutsi zuten egubakoitzeko lehia. Hala, bigarren zatiko lehenengo 10 minutuetan, lau goleko aldearekin aurretik zihozten etxekoak. Azkenik, baina, bizkaitarrek berdintzea lortu zuten, eta puntuak banatu zituzten Zubikoan. Aurten denboraldirako, gazte mailatik igotako lau jokalaririk berri ditu taldeak. Bestalde, Erika Arteagak Zarautzen jokaturako du aurten.

> EUSKAL SELEKZIOA

### Aloña Mendiko lau jokalarik entrenamenduak egin dituzte Euskal Selektioarekin asteburuon

Euskal selektioak deituta, Aloña Mendi eskubaloitza saileko lau jokalaririk selektioarekin entrenatzen ibili dira aste bukaeran. Nesken selektioarekin, Ane Herrero arrasatearra eta Goretz Ibabe eta Itziar Murgiondo oñatiarrek aritu dira; mutilekin aritu da, berriz, Kepa Zelaia oñatiarra.

Ez da federazioak deituta Euskadiko selektioarekin entrenatzen duten lehenengo aldia. Iaz, esaterako, Herrero selektioarekin jokatu zuen Espainiako Txapelketa, eta Zelaia ere selektioarekin entrenatzen ibili zen. Herrero gazte mailako jokalaria da, eta Ibabe, Murgiondo eta Zelaia, kadete mailakoak.

M.B. > BERGARA

Jardunaldi bikoitza jokatu du aste bukaeran Bergarako eskubaloitza taldeak. Urriaren 7an Ford Mugarriren aurka jokaturako derbian erakutsitakoa asko hobetu zuen arren, Josetxo Muniategiren taldeak apenas izan zuen aukerarik talde bizkaitarren kontra jokaturako norgehiagokak irabazteko.

LEHEHENGO MAILA &gt; BIGARREN JARDUNALDIA

# Bigarren zatiko defentsari esker irabazi zuten arrasatearrek

Atsedena ondo hartu zuen abantaila markagailuan Mondragon Unibertsitateak

Goierri Verkol taldearen aurkako garaipenarekin, bigarrena eskuratu dute arrasatearrek

MIREIA BIKUÑA &gt; ARRASATE

Bi partidu jokatu, eta biak irabazi ditu lehenengo mailan lehiatzen den Mondragon Unibertsitatea taldeak. Egubakoitzean jokatu zuen Iturripen Goierri Verkol taldearen aurka; eta, lan handia eginenez, denboraldiko bigarren garaipena eskuratu zuen Iñaki Merinoren taldeak (102-79).

Halaber, markagailuak erakusten duen modura, puntu askoko partidua izan zen: bi taldeek erasoan defentsan baino hobeto jokatu zuten seinale.

Atsedenean, Arrasateko taldeko entrenatzaileak emandako aginduei kasu eginenez, defentsa gogor eta sendoa eginenez erdietsi zuen MUK Zumarragako taldearen aurkako garaipena.



LAGUNARTEKOA Imanol Zeziaga baloiarekin, irailean, Ados Saskibaloia taldearen aurkako partiduan.

GOIENKARIA

**DEFENTSAN, GAIZKI**

Goierri Verkol taldeak jokalaria azkarrak dituela jakin arren, Iñaki Merinoren taldeak oso galduta hasi zuen lehia defentsan. Hala, entrenatzaileak aldaketak egin arren, etxekoek ez zuten Goierri Verkol taldeko jokalarien erasoak gelditzeko bidea aurkitu. Edoze-

lan ere, erasoan lan bikaina egin zuten bi taldeek: hala, bigarren laurdeneko bosgarren minuturako, markagailuak 42-41 erakusten zuten.

**AZKEN BI LAURDENAK**

Atsedenean, etxeko taldeak sei puntuko errenta zuen (51-45). Bai-

na, hirugarren eta laugarren laurdenetan, defentsa gogorra egin zuten, eta Zumarragako taldeak huts gehiago egin zituen erasoan. Horregatik guztiagatik, Mondragon Unibertsitateak hogeita puntuko tartea zabaldu zuen markagailuan. Nahikoa izan zen ligako bigarren garaipena lortzeko.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA &gt; LEHENENGO JARDUNALDIA

## Garaipen erosoak Eskoriatzak etxean lortutakoa

Aurtengo denboraldiari begira, entrenatzaile berria izango du Eskoriatzak, Iker Zelaia, alegia

ESKORIATZA

# 92-46

ALDE ZAHARRA

luan etxekoek; hala, lehenengo eta bigarren laurdenean, 46 puntu lortu zituzten, eta jaso, 24 besterik ez. Atsedena ondo hartu zuten, etxeko jokalariek ez zituzten indarrak jaitsi, eta beste hainbeste puntu egiteko gai izan ziren

**DEFENTSAN, SENDO ETXEKOKAK**

Defentsan, oso lan ona egin zuten etxekoek; baloi asko lapurtu zituzten, batez ere, kantxa erdian, eta taula azpian ondo ibili ziren errebotea hartzerako orduan. Erasoan, ondo jokatu zuten; baloia azkar mugitu zuten, eta taula azpiraino sartzeko gai izan ziren. Hala, puntu gehienak tau-



DEFENTSA Irudian, Eskoriatzako Olatz Laborda defentsan.

JOSETXO ARANZABAL

la azpiko jaurtiketetan egin zituzten. Jaurtiketa erosoak egin zituzten, eta, gainera, jaurtiketak sartzekoan, fin aritu ziren.

Entrenatzaileari dagokionez, Iker Zelaia oñatiarrak hartu du aurtengo taldea zuzentzeko ardura; zapatuan, baina, ez zuen partiduan

egoterik izan, eta bere ordez Fernando Raso egon zen. Raso pozik zegoen taldeak egindako lanarekin: "Bai atzean eta bai aurrean, ondo jokatu dugu, eta inoiz egin dugun saskiratze marka handiena lortu dugu gaurkoan", adierazi zuen, pozik, partidu amaieran.

> GIPUZKOAKO 1. MAILA  
**Bigarren laurdenean egin zion ihes lehiak Bergarako taldeari**

Irunen jokaturako lehia ondo hasi zuten bergararrek; hala, lehenengo laurdenean amaieran, 6-11 aurretik ziren mahoneroak. Baina bigarren laurdenean, ez zioten neurria hartu jokoari, eta 17-0eko partziala jaso zuten kontra.

Hala, ezin izan zioten markagailuari buelta eman, eta 53-44 galdu zuten Uranzu kiroldegian. Bergararrek, hortaz, gaizki hasi dute aurtengo denboraldia. Orain arte jokaturako partidu guztiak galdu dituzte; maila berriari neurria hartzea kostatzen ari zaie eta, oraingoz, azkenak dira sailkapenean.

> GIPUZKOAKO 2. MAILA  
**Aloña Mendik ondo hasi du denboraldia, 63-58 irabazita**

Etxekoan aurrean hasi du Aloña Mendiko senior mailako mutilen taldeak denboraldia, eta ezin hobeto hasi du, gainera.

Zapatuan, Zubikoa kiroldegian, Donosti Dolphins taldearen aurka 63-58 irabazi zuen Gorka Judezen taldeak. Datorren astean, atsedena izango dute oñatiarrek.

Aurtengo denboraldiko lehenengo ligaxkan, lau talde arituko dira Aloñarekin batera: Donosti Dolphins, Baskoplastika, Erroibide eta Internacional. Oraingoz, lehenengo dira oñatiarrak.

## emaitzak

## MAILAZ MAILA

## LEHENENGO MAILA

Ingenieria Arana-Candy 53-44

## GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

Aloña Mendi-Donosti Dolphins 63-58

## SENIOR NESKAK

Eskoriatza-Cafes Aitona 92-46

## GAZTE MUTILAK

Easo A-Mondragon Unibertsitatea 87-76

Oiarso-Bergara 45-86

Aloña Mendi Atsedena

## GAZTE NESKAK

Eskoriatza-BKL CAF 42-41

Astigarraga-Bergara 60-44

## KADETE MUTILAK

Zarautz-Mondragon Unib. 43-66

## KADETE NESKAK

Bera Bera Zurriola-Eskoriatza 35-61



ASTE Mendi Asteko ospakizunetan ari dira Besaide elkarteak.

ARTXIBOA

MENDIA > OSPAKIZUNA

## Besaideko Mendi Astean, hitzaldia egingo dute bihar

Aurten, 50. urteurrena betetzen du Besaide Mendi elkarteak; hori dela-eta, hitzorduz betetako Mendi Astea antolatu dute Arrasaten

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Hasi dira Arrasateko Besaide Mendi Elkarteak ospakizunetan; hala, aurtengo Mendi Astea inoiz baino beteagoa prestatu dute. Mendi elkarteak 50. urteurreneko ospakizunetan buru belarri dabil. Asteburuon, Pirinioetan izan dira mendi irteera egiten: Lutour, Oulletes, Wallon eta

Sallent-en izan dira mendizaleak. Biharko, berriz, diapositiba emanaldia antolatu dute.

G2 MENDIKO ESPEDIZIOA

Iban Silvar eta Josu Juanek egingo dute biharko diapositiba emanaldia; 19:00etan izango da, Kulturaten. Bertan, orain dela bi urte G2 mendira egin zuten espe-

dizioa kontatuko dute Arrasateko bi mendizaleek.

Hurrengo emanaldia hilaren 18an izango da, eguena. *New Delhitik Kathmandura bizikletaz* izeneko diapositiba emanaldia egingo dute Alberto Asensiok, Aitor Garrok, Asier Bengoak, Asier Atxak eta Aitor Bengoak. Indian bizikleta gainean egindako bidaiaren berri emango dute Kulturaten, 19:00etan hasita.

Domekarako, berriz, mendi irteera eta bazkaria antolatu dituzte; Errioxara joango dira. Mendi zeharkaldia Biasterin hasi eta Oion artekoa izango da.

PILOTA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Datorren astean hartuko dute berriro txapelketa

Arrasate, Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Olalde ari dira lehian

A.E. > BERGARA

Gipuzkoako Txapelketak atsendena hartu zuen joan den aste bukaeran; hala, datorren astean hartuko dute berriro pilotariak txapelketako martxa.

TALDEEN HITZORDUAK

Datorren astean, Behar Zana taldearen aurka jokatu dute Arrasatekoak. Senior mailako taldea (Gorka Jimenez eta Beñat Dominguez) lehenengo faseko A taldean dago. Orain arte jokatu dute bi partiduak galdu dituzte, eta laugarren dira sailkapenean.

Bestalde, Bergarak bi talde ditu: alde batetik, Ander Muguruza eta Igor Gutierrez eta, bestetik, Eneko Muguruza eta Igor Larrañaga. Muguruza eta Gutierrez Ilunperen aurka lehiatuko dira datorren astean; eta Muguruza eta Larrañagak Azkoitiko hartuko dute.

Muguruza eta Larrañagaren talde berean, Aretxabaletako Sergio Uriarte eta Aitor Alzolak jokatu dute. Horiek Eibarren aurka lehiatuko dira datorren astean.

Antzuolako Olalde elkarteak Aitor Mendizabal eta Andoni Azkarate C taldean daude. Horiek lau partidutatik hiru irabazi dute, eta datorren astean Usurbilen aurka lehiatuko dira. Azkenik, Eskoriatza E taldean dago; hirutik hiru partiduko irabazi dituzte, eta lehenak dira sailkapenean.



BOLINAGA Arrasateko pilotaria.

ARTXIBOA

XAKEA > ARRASATE HIRIA TXAPELKETA

## Aitor Alcaidek Nazioarteko Maisua menderatu zuen

Egubakoitzean, ezustean lortutako garaipenarekin, Aretxabaletako jokalaria Arrasate Hiria Xake Txapelketako liderra da

MIREIA BIKUÑA > ARRASATE

Egundoko ezustea eman zuen egubakoitzean Aitor Alcaidek Arrasate Hiria Xake Txapelketako bosgarren jardunaldian: Aretxabaletako jokalaria Nazioarteko Maisu titulua duen Alejandro Franco madrildarra menderatu zuen. Hala, Alcaide lider da sailkapenean, eta Francok txapelketa irabazteko aukera guztiak galdu ditu.

Egubakoitzean jokatu den azken jardunaldian erabakiko da irabazlea nor den.

HIRU HAUTAGAI

Azkenurreko jardunaldiaren ondoren, Arrasate Hiria Xake Txapelketa irabazteko aukera dutenak hiru jokalaririk dira: Aitor Alcaide (4,5 puntu), Fran Miguel (4 puntu), eta Alain Prieto (4 puntu). Hala, Aitor Alcaide aretxabaletarrak Alain Prieto abadiñoarraren aurka jokatu duen lehia erabakigarria izango da. Seigarren jardunaldia arratsaldeko zazpitan hasiko da.

FIDE MAISUA


Arrasate Hiria Xake Txapelketako bigarren tokian sailkatuta dagoen Fran Miguel aretxabaletarrak FIDE Maisu titulua lortu berri du. Nazioarteko Xake Federazioak ematen duen titulua hirugarren garrantzitsua da, Nazioarteko Maisu Handi eta Nazioarteko Maisu tituluen atzetik kokatzen da-eta.

Hala, lehen aldian da bailarako xake jokalaririk batek halako Maisu titulua lortzen duena.



BOSGARRENA Argazkian, egubakoitzeko jardunaldiko une bat.

JOSETXO ARANZABAL



## Aurreikuspen | Pentsio Planak

### Lor itzazu opariak edo Travel Club Puntuak zure ekarpenekin

Egin itzazu ekarpenak Euskadiko Kutxaren zure Aurreikuspen / Pentsio Planera eta zure etorkizuna bermatzeaz gain, opari bat edo Travel Club puntuak emango dizkizugu opari 2007ko urtean zehar egindako ekarpenen batuketatik. Urtea amaitu baino lehen egiten dituzun ekarpenekin zure desgrabazioa eta zure oparia hobetzeko aukera izango duzu.


# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



## > ERAKUSKETA

Esther Galartzaren lana ikusgai Bergarako Aroztegin > 24



## > ANTZERKIA

Espaloian, 'Pagagnini' obra, Yllana taldearen eskutik > 26



## > LATZEN

Barikuan egin zuten kontzertu birako lehen emanaldia > 26



## > ASIER

ARANGUREN Kazetari aretxabaletarra, elkarrizketan > 29

## LITERATURA SOLASALDIAK

# Solasaldien 7. edizioa aurten

Amelie Nothomb edo Beñat Sarasolaren liburuak irakurriko dituzte, besteak beste

Gaztelaniazko taldea osatua dago, baina euskaraz irakurtzeko eta komentatzeko badago aukerarik oraindik

### MAIER URANGA > ARRASATE

Arrasateko Bibliotekak Literatura Solasaldien 7. edizioa antolatatu du udazkenerako. Euskaraz zein espainolez izango diren solasaldiak urrian hasi eta datorren urteko ekainera arte izango dira. Esan beharra dago gaztelaniazko taldea osatuta dagoela, eta arduradunek herritarrak animatu gura dituztela euskarazkoan parte hartzera.

Euskarazko solasaldietan, Iban Zaldia izango da koordinatzailea; espainolezko taldean, aldiz, Rikardo Arregi.

Hilabetero liburu bat proposatuko dute koordinatzaileek. Irakurri eta gero, taldean batuta, liburuaren gaineko kritikak eta inpresioak konpartitzeko aukera izango du literatura solasaldietan parte hartzen duen orok.

### IZENEMATEA

Parte hartzeko asmoa duzuenok jakin ezazue izenemate epea eguenean, hilak 18, amaituko dela, eta saioak Kulturaten izango direla, 18:30etik 20:30era bitartean, alde zuzenetik finkatutako egunetan.

Informazio gehiago gura izanez gero, 943 25 20 25 telefono zenbakira deitzea besterik ez duzue.



ARTEA &gt; ERAKUSKETA

# Esther Galartzaren erakusketa ikusteko aukera dago Bergarako Aroztegi aretoan

'Disonantzia Armonian' bilduma urriaren 28ra arte egongo da Bergarako aretoan

"Desio handiegirik gabe, ideia bat eraikitzen dut...Denok ura, materia organikoa eta sua gara", dio egileak

MAIER URANGA &gt; BERGARA

Urriaren lehenengo astean ireki zituen atea Esther Galartzaren zeramika erakusketak. Bergarako Aroztegi aretoan egongo da urriaren 28 arte. Astelehenetan aretoa itxita dagoen arren, martitzenetik domekara bitartean atea irekita izango ditu Bergarara datorren orok.

*Disonantzia Armonian* dauka izena erakusketak. Lanak formatu askotakoak dira, gres errefrektario, esmalte eta oxido keramikoarekin eginak.

2006an aurkeztu zuen lehenengoz Esther Galartzak *Disonantzia Armonian*. Bergarara ekarri aurretik, Donostiako Boulevard Kutxa aretoan eta Zumaia-ko Alondegian erakutsi du bilduma hori.



EGILEA. Esther Galartza, Aroztegin ipini duen bere lan batekin.

JOSETXO ARANZABAL

**SINOPSISIA**

Bere lanaren gainean, hauxe dio egileak: "Desio handiegirik gabe ideia bat eraikitzen dut. Gizakitik abiatuz, humanitateak ematen didan disonantzia handitik,

puntu komun bat bilatzen dut", azaltzen du. "Orokorrean, izpiritu, ideologia eta irudien barietate bat baino ez dira ikuspegi hau armonikoa izatea lortzen dutenak. Denok ura, materia organi-

koa eta sua gara", gaineratu du Esther Galartzak.

**ARTISTA**

Galartza Eibarren jaio zen 1956an. Zeramista eta pintorea, 1978az

geroztik, erakusketak antolatu ditu Euskal Herrian eta Espainian. Sormena irakaskuntzarekin tartekatzen du; 1983. urtean Eibar-ko Udal Zeramika Eskola sortu zenetik, bertan irakasten du.

MARGOLARITZA &gt; LEHIAKETA

## Iñaki Telleria, irabazle Aramaio-ko margo lehiaketan

Parte-hartze handia izan zuen Aramaion aste bukaeran ospatu zuten kaleko margo lehiaketak: Donostia, Allo edo Kantabriatik etorri ziren egileak

M.U. &gt; ARAMAIO

Itur-Zuri emakume taldeak antolatuta, barikuan 16. margo lehiaketa jokatu zen Aramaio-ko kalean zehar.

Nahi zuenak har zezakeen parte, eta erabili beharreko teknika librea eta aukeratutako gaia Aramaio eta bere ingurua ziren. 30 heldu eta 38 gazte egon ziren parte hartzen. Toki askotatik heldu ziren margolariak Aramaio-ra; urtero lehiaketa horren ize-na handituz ei doa nonbait.

Donostiako Amaiak adierazi zigunez, bere kasuan, nahiko berandu zebilen: lana entregatzeko ordua 14:00etan jarria zuten, eta Aramaio bilatu ezinda ibili zenez, bukatuko ote zuten kezka zituen.

Irabazleak arratsaldean izendatu zituzten, parte hartu zutenek bazkaria eman eta gero. Lehenengoko saria Jokin Telleriarentzat, bigarrena Jose Miguel Arranzentzat eta hirugarrena Esteban Orozentzat izan ziren. 16 urtetik beherakoetan, aramaio-arrak izan ziren hiru irabazleak: lehenengo, Manex Zalakain; bigarren, Celia Ruiz; eta hirugarren, Maddi Caverio izan ziren.

**MARGOLANAK, SASTIÑAN IKUSGAI**

Lehiaketan egin zituzten artelane-kin erakusketa antolatu dute orain: Sastiñan daude ikusgai urriaren 22ra bitartean. Irabazle-ekin lanak kenduta, besteak erosteko aukera ere badago.



LANEAN Lehiakide bat, Aramaion margotzen.

MAIER URANGA





## LORTU DUGUNAREN SEINALE



Asko da egiteko duguna  
baina 10 urte  
hauetako emaitzak  
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO  
LANA EUSKALDUNTZEKO  
DINAMIKAN MURGILDUTA  
ZAUDETEN GUZTIOI



### OSPAKIZUN EKITALDIA ELKARREKIN BIDEA EGITEN...

NOIZ: 2007ko URRIAK 24  
LEKUA: Amaia Antzokia. ARRASATE  
ORDUA: 17:30



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO  
KOOPERATIBA

Informazio gehiago: [www.emun.com/10urte](http://www.emun.com/10urte)  
[www.lantalan.com](http://www.lantalan.com)

ANTZERKIA &gt; 'PAGAGNINI'

# Txaloak eta barreak izan zituzten sari Yllanakoeak eta Malikian biolin-joleak

Yllanaren umore zoroaz eta musika klasikoaz gozatu zuten Espalora joan zirenek

Ara Malikian biolin-jolea, gaur egungo handienetakoa, lagun izan zuen Yllanak

MAIER URANGA &gt; ELGETA

Eguenean, hilak 11, 22:30ean, Yllana taldeak eta Ara Malikian musikariak *Pagagnini* antzeulan musikatua aurkeztu zuten, Elgetako Kafe Antzokian. Barre egiteko beldurrik gabe gerturatu ziren hainbat eta hainbat debagoiendar.

Txalo zaparrada ugariak eta barre algarak izan ziren antzelehen eta musikariaren saria Espalorian, Yllana taldearen kasuan ohikoa den bezala. Jendea gainezka zegoen aretoa, antolatzaileek aurreikusitako bezala.

Pachelbel, Mozart, Bocherini edo Paganini beraren lanak jo zituzten, besteak beste. Umorea eta zoramena elkarrekin nahastuz, *des-kontzertu* interesgarria lortu zuten. Berezitasunetako bat ikuslea aktore eta, era berean, musikari bilakatzen zutela izan zen. Ikuskizun guztian zehar,



BIOLIN-JOLEA Soka-instrumentuak izan ziren emanaldiko protagonista bat.

JOSETXO ARANZABAL

argiaren eta kolorearen kontrastearekin jolasean ibili ziren. Momentu batez, errealitate kanpo egon ziren ikusleak, lau aktore eta musikari birtuosismoari esker.

ARA MALIKIAN

1968an Libanon jaiotako artista da Ara Malikian, eta gaur egungo biolin-jolerik karismadunenetarikoak dugu. Musikarekiko duen sentsibilitate eta espresibitateak bere estiloa garatzeko bidea eman diote.

12 urterekin eman zuen lehenengo kontzertua, eta 15ekin, Alemaniako Gobernuak musika ikasteko beka bat eskaini zion.

EMANALDIA

## 'Apaizac Obeto' diaporama Bergaran

M.U. &gt; BERGARA

Datorren egunean, hilak 18, Apaizac Obeto espedizioaren diaporama emango dute Bergarako kultura etxean.

Jardun euskara elkarteak antolatzen du, eta hitzordua 19:30ean jarri dute. Hizlari lanetan, Jon Maia bertsolaria izango da.

ANTZINAKO MARINELAK

Euskal baleontziek XVI. eta XVII. mendeetan Kanadako ipar-atlantikoan izandako ibilerak biziberrituko ditu espedizioak. Quebecetik hasi eta Labradoreraino bi mila kilometrotako nabigazioaren bidez, hainbat euskal azternategi bisitatzeko aukera izango dute ikus-entzuleek diaporama bitartez.

KONTZERTUA &gt; LATZEN

## Zortzi urte eta gero, berriz taula gainean

Hasieran urduri zeuden arren, eroso aritu ziren Latzeneko taldekideak

A.A./M.U. &gt; OÑATI

1999an eman zuten, ustez, azken kontzertua Latzeneko mutilek. Zortzi urteren buruan, bakoitza bere bidea bakarka egiten saiatu eta gero, talde oñatiarra ostera agertokietara bueltatu da. Taldekide berberak osatzen dute banda oraingoan ere; musikaz gozatzeko gogo handiagoa dutela pentsarazten du horrek.

JENDE MORDOA OÑATITIK

Jarraitzaileak dituztela badakiten arren, Latzenekoeak ez zuten Errezura gerturatu zen jende guztia espero: pare bat autobuskada betetzeko adina lagun elkartu ziren Nafarroa aldean. Oñatiarrak bakarrik ez, Debagoienetik ere hurbildu zen jenderik hard-



LATZEN Taldekideak eta entzuleak zein baino zein gogotsuago ibili ziren kontzertuan.

O.I.

core melodikoa lantzen duen taldeaz gozatzera.

Bostehun bat ikusle egongo zen guztira Riezuko gaztetxean. Kontzertu bira horrek sortu duen

ikusminagatik akaso, batzuk sekula taldea ikusi barik, espetakulua gozatzeko intentzioaz gerturatu ziren. Beste batzuk, ordea, aurrez jarraitzaile izanik,

bera hori ere osorik taldearekin egiteko asmoz agertu ziren. Taldeak zintzilik utzitako ikasgai gisa hartu du itzulera hau. Asmoa CD/DVD bat grabatzea dute.



MUSIKARIAK Goiko ilaran ezkerretik hasita, Mikel Arriaran, *Arri* eta Asier Uribetxebarria *Atxi* eta beheko ilaran ezkerretik hasita, Ander Durañona *Dura* eta Andoni Iñurrategi, *Pottoko*.

MAIER URANGA

# "Taldea sortzean, ez genekien instrumenturik jotzen"

"Pozgarria da Puzkarra Records bezelakoak egotea, gure lana aurrera ateratzen laguntzeko", diote Never Surrenderrekoek

Lau astetan, diskoaren bostehun aleetatik ia guztiak saldu dituzte, eta oso pozik daude jendearen erantzunarekin

MAIER URANGA > ARRASATE

Never Surrender Arrasaten sortu zen 2002an. Lau taldekide gazte baina gogotsuk, Pottoko, Arri, Dura eta Atxik, 11 abesti propioz osatutako *Aurrerapeneren izenean* diskoa kalean dute, eta oraingo zapatuan, Bilboko Santana aretoan, Sham69 taldearekin, besteak beste, emango dute kontzertua.

**2002an taldea sortu eta hila-bete gutxira eman zenuten lehenengo kontzertua. Nolan hain goiz?**

Orduan, Zigorrolako lokal baten entseatzen genuen Anger eta Spank-ekin. Azken hauetako baten aita extremadurar kultura elkarteko bazkide zen, eta han jotzeko aukera eman zigun. Jende pilo gerturatu zen.

**Kontzertu hartatik hona, asko ikasi duzue?**

Taldea sortu genuenean, ez genekien instrumenturik jotzen. Pentsa zenbat ikasi dugun!

**Argi dago, bai; esan beharra dago, gainera, hurrengo kontzertua Sham69rekin duzuela Bilboko Santanan.**

Alde ederra Corazon de Encinatik Santanara... (barre). Hasieran, Des-kontrol zen joatekoa; baina, ezin zutela edo, guk pozik hartu dugu haien lekua.

**Goazen diskora... Arrasateko Shot!-en grabatu duzue.**

Bai; Josemarekin grabatu eta Iñakirekin nahastu. Arazo tekniko txiki batzuk izan genituen arren, oso gustura aritu ginen.

**Denbora asko eman zenuten estudioan?**

Guztira, hirurogeita hamarren bat orduz ibili ginen lanean. Baina ez dugu dena segidan egin; 2006ko martxoan hasi eta urte bereko ekainean bertan amaitu genuen. Ikasketak, lana, musika... dena batera egitea ez zaigu posible.

**Puzkarra records eta True Force records izan dituzue ekoizle. Zer dela eta?**

Puzkarra records Bardulia-ko jendeak sortutakoa da, eta ekoizten diguten 12. lana da hau. Jorrazten dugun musika estiloa ez zaie diskete handiei interesatzen, eta pozgarria da Puzkarra modukoak egotea, gure lanak aurrera eramaten laguntzeko.

True Force Records etxea, bestetik, indartsuagoa da. Horiek diskoaren banaketa Espainian eta atzerrian egingo dute. Bakoitzak 500 disko banatuko ditu.

**Gustura zaudete diskoaren orain arteko salmentarekin?**

Oso. Lau astetan, 500etik ia denak saldu ditugu. Poztekoa da! Genteak gustura hartu duen seinale da hori.



## Doinu rockeroagoak oraingoan

*Iraganaren izenean* titulupean argitaratu du Arrasateko Never Surrender bere bigarren lana. Street-punk melodikoa egiten du. Hitz gehienak euskaraz dituzten, baina ingelesez ere badituzte.

Aurrekoarekin konparatuta, lasaiagoa dela diote batzuek, baina, guztian bezala, konparazioak soberan daude.

Gaztetasunean egindako lan polita eta indartsua da. Eskertzekoa da taldeak duen musikarako gogoaz disfrutatze eskaintzen digun aukera.

Maier Uranga

**Bost urteko ibilbidea eta gero, maitasun bereziz gogoratzen duzuen kontzerturik izango duzue ezta?**

Batzuk bai... Adibidez, behin Añorgan Azpeitiko beste bi taldearekin jo genuen. Jotzera joaten garen toki gehienetan, jente ezaguna egoten da. Egun hartan, inor ezagutzen ez genuen arren, musikak sortzen duen magiagatik akaso, lagun handiak egin genituen. Gaur egun, oraindik ere harreman oso ona dugu eurekin.

Beste behin, *Pottoko*-k klabikula hautsita, Iratin genuen kontzertua ezin jo eta, azkenean, *Bilix* eta *Zaka*-rekin (Sindy Berbenas) abestu genituen bersio batzuk. *Pottoko* barran jesarrita egon zen, baina ez pentsa abestu gabe geratu zenik!

**Eta amesgaiztorik?**

Iparraldera bigarren aldiz jotzera joan ginenean. Maulen jo eta gero, baserri batera eramantzen ginen lotara. Bigarren pisuan genituen oheak, eta lehenengoan, berriz, disko-jartzaileak jarri ziguten hurrengo goizeko hamabiak arte! Amets egiteko aukerarik gutxi izan genuen, hortaz!





## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

## Udazkenean sartu garen honetan...

**J**aiak bukatu dira, eta lasaitasuna iritsi da. Gainera, Pilarikako zubiarekin batera, udazkena iristen da (izatez, udazkenean sartuta gauden arren); hortaz, are eta egun tristeagoak izaten dira hauek. Hala, jendeak udako arropak gorde eta negukoak ateratzen ditu. Beste mordera, berriz, neguko arropak erosten izango ziren aste bukaeran; Donostian, Gasteizen... denda guztiak jendez gainezka. Udazkeneko arropak erosi arren, eguraldi bikaina egin du aste bukaeran; galde-tu, bestela, zapatuan Pol-

### "Datorren astean, Oñatiko Txantxiku Ikastolak ikasle ohien bazkaria ospatuko du "

**Poleko bazkarian** izan ziren bergarrei. Txapelik ez, eta paperezko txapelak egin zituzten eguzkiari aurre egiteko.

**Mojategin**, berriz, tabernarik ez dute jarri, eta futbola ikustera joan ziren zaleek **Eroskira** joan behar izan zuten tragotxo hartzera. Hortaz, Mojategiko arduradunei taberna eskatuko diegu. Hori, ikusleen aldetik, baina jokalariek ere izango dute zer esana, aldagelak Musakolako kiroldegian dituzte-eta.

**Des-Kontrolak** Durangon jo zuten zapatuan; hara, ibarreko zale ugari joan zen, arrasatearren musikaz gozatzen. Datorren astean, Oñatin, **Txantxiku Ikastolak** 40. urteurrena ospatuko du. Ikasle ohien bazkaria antolatu dute; betikoak elkartzeko aukera polita!

### hildakoak

- Antonio Kortabarria Zurutuza. Oñati. Urriaren 10an. 67 urte.
- Domingo Ibañe Txintxurreta. Arrasate. Urriaren 12an. 93 urte.
- Felisa Zubia Markuleta. Oñati. Urriaren 12an. 83 urte.

## asteburuko albuma



**Eguarbitzako lurrak garbitzen.** Elgetako Udalaren deia jarraituta, Eguarbitzara joan ziren lau lagunek fin jardun zuten lanean. Asmoa zen, auzolanean, azken zuhaitz egunean landatu zituzten arbolengatik inguruak txukuntzea; eta horretan jardun zuten. Barrikuko irteera antolatu zuten udal arduradunek adierazi digutenez, "ondo dago, haur eta gurasoek batera, Zuhaitz Egunean, arbolak landatzea, baina zuhaitzak, landatzeaz gain, zaindu ere egin behar dira".



**Bizikletan Landan.** Arrola Mendi Elkarrekin antolatuta, Landara irteera egin zuten 25 antzularrek atzo. Goizean goiz, giro freskoarekin abiatu ziren, baina gero, eguraldi goxoa izan zuten. Landako urtegiaren inguruan ibili ziren goizean mendiko bizikletan, eta, eguerdirako, nahikoa izerdi botata, etxera bueltan ziren. Inork nongoak ziren zalantzarik izanez gero, kirol arropetara begiratu besterik ez zuten: Antzuolako Txirrindulari Taldeko jantziak ziren.



**Rock gaua Bergaran.** Bi talderen emaldia zegoen iragarrita zapatu iluntzerako gaztetxean, baina Galiziako Eternos taldekoek kale egin zuten, arazo bat tarteko. Hortaz, Txapa Irratiak antolatutako kontzertuan Rockaina talde gasteiztarra bakarrik izan zen taula gainean. Gaztetxean elkartutako 40 lagunendako **Rockaina: La mejor mierda** lanean jasotako rock doinuak eskaini zituen, besteak beste, laukote gasteiztarrek.

Txapakoe jakinarazi digutenez, zapatukoaren ostean, hurrengo kontzertuak gertatzen dihardute. Abenduaren 15erako, Sixty Sexers talde nafarraren zaleek hitzordua dute gaztetxean. Bestalde, taldeak zehaztu gabe egon arren, azaroan ere izango da Txapak antolatutako kontzerturik.



**ONCERekin Santiagora.** Donejakue Bidearen azken zatia, Ponferradatik Santiagora, egin dute ONCE elkarteko 23 lagun itsu eta besamotzek. Tartean zen Arrasaten kupoak saltzen ibiltzen den Joserra Untzurruntzaga oñatiarra ere. Besamotza izanik, Mikel Lizarraldeki bizikleta berezia, kanbioak ezkerrean dituenak, prestatu zion. Domekan Santiagora iritsita, astean berriz bueltan izango da lanean, eta baliteke Santiagotik zortea ekarri izana.

### PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ospakizunak, ezkontzak, txutxu-mutxuak, bazkariak, jaiak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera:

[astelehena@goiena.com](mailto:astelehena@goiena.com)


## zorion agurrak



**BERGARA**  
**Hugo Cachafeiro Rodriguez**  
Urriaren 10ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitaren eta amaren partetik.



**ARRASATE**  
**Ainhoa Garcia**  
Urriaren 10ean, 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik.



**OÑATI**  
**Gari Alzelai**  
Urriaren 10ean, urtebete. Zorionak, *Pototo!* Ondo ibiliko zinen zure lehenengo urtebetetzean!




**ARRASATE**  
**Hafsa Laouar**  
Urriaren 11n, 2 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik.



**OÑATI**  
**Nerea Urteaga eta Amaia Arregi**  
Urriaren 12an, Nereak, eta urriaren 14an, Amaiak. Ondo pasauko zebein zuen urtebetetze eguna, eta urte askotarako! Lagunen partetik.



**BERGARA**  
**Haizea Bengoa**  
Urriaren 12an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



**ELGETA**  
**Xabier Arrasate Lasa**  
Urriaren 13an, 2 urte. Zorionak aita-txo, amatxo eta Kattalinen partetik.



**ARRASATE**  
**Maddi Pampin**  
Urriaren 14an, 2 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik.

**ZORIONAK!**  
Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez!  
Ekar ezazu bere argazkia, eta emaitza ezusteko ederra!



**ARRASATE**  
**Iker Uribesalgo Aspiazu**  
Urriaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, txapeldun! Muxu asko etxekoaren partetik. Jon, aita eta ama.



**OÑATI**  
**Argia Markuleta**  
Urriaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Ondo pasau zure bigarren urtebetetzean!



**ARRASATE**  
**Elena Rodrigo Provedo**  
Urriaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak eta ondo ondo pasa eguna! Patxuak.



**BERGARA**  
**Zaloa Unamuno Lopez**  
Urriaren 18an. Zorionak! Eskerrik asko gure bizitza alaiaguna eitziaigaitxi. Gurasoak eta familiakoak.




**BERGARA**  
**Unax Garitano**  
Urriaren 18an, urtebete. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki Malenen partetik.



**ARRASATE**  
**Maialen Garcia**  
Urriaren 18an, 5 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik.



**BERGARA**  
**Oier Pescador**  
Urriaren 19an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat Leireren partetik.



**OÑATI**  
**Malen Osinaga**  
Urriaren 20an, 2 urte! Zorionak! Urte askotarako, patxo potolo-potolo bat etxeko danon eta batez be Eneritz eta Auritzen partetik.



**ARRASATE**  
**Txomin Arriaran Lagunilla**  
Urriaren 21ean, 6 urte. Zorionak eta milaka muxu familia guztiaren partetik.



**ARRASATE**  
**Julen Abarrategi Garai**  
Urriaren 22an, 6 urte. Zorionak familiako guztien partetik!

## BABESLEA



# IKUSI MAKUSI



Umeen  
paradisua

Juan Luis Zabala > Idazlea

# "Txirrindularitza eta idaztea parekoak dira"

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Bizikleta gainean ibiltzea eta idaztea dira Juan Luis Zabala azkoitiarraren zaletasun nagusiak. Hala ere, bere ogibidea kazetaritza da, eta *Berria*-n dihardu, Kultura saillean. Hainbat sari jasota dauzka, eta liburu dezente kaleratu ditu.

**Aspaldikoa da Pipi zure goitizena?**

Bai. OHO ikasten genbiltzala, lagun bat *pipiolu* deitzen hasi zitzaidan, eta ordutik, hor gelditu da, laburdurarekin. Ohitu naiz, baina arazo txiki bat daukat: ezagutu berri nautenei, hasieran kostu egiten zaiela *Pipi* deitzea, baina, gainerakoan, beste ezizen bat moduan. Bestalde, kutsu femeninoa ere badu, eta noizbait gaizki-ulertzeak ere izan dira.

**Zein izan zure helburua Galdu arte idazterakoan?**

Ordura arte idatzi nituen liburuekin apurtu gura nuen; kolore eta bizitasun handiagoa eman gura nuen. Liburu horretan, Azkoitiko gaztetxeo giroa, gertutik ezagutu nuena, kontatzea erabaki nuen; eta, bide batez,

kanpotik gaizki interpretatu diren gaztetxeen beste alderdi bat erakutsi. Gainera, garai hartan *Goenkale* hasi berria zen, eta gogoan dut bazegoela Mikel izeneko pertsonaia bat, herriko gaizto bakarra zena: tximak zituen, txupa beltza, jarrera makarra, drogak, musika gogorra... Este-reotipo hori apurtu gura nuen.

**Liburu horren ondorioz, ber-baldi dezente egin dituzu...**

Bai. 40 urtetik gora izanda, batzutan deseroso samar egon izan naiz. Ipuin bat ere idatzita

daukat egoera horren gainean, nire buruari barre eginez. Giro horretatik irtenda nago dagoeneko, baina gazteek interesa badute eta eskatzen badidate, bada, joaten naiz.

**Inoiz esan duzu hizkuntza zuretzat obsesioa dela...**

Bai, eduki nuen bolada bat. Sasoi baten, *Egunkaria* boligrafo gorriarekin irakurtzen nuen, akatsak zenbatzeko. Halako baten, Tolosako Triangelu plazan horretan nenbilela, Kike Amonarrirek *in fraganti* harrapatu ninduen (barre). Orain, lasaitu edo ohitu naiz, baina amorratu egiten nau behin eta berriro akats berberak ikusteak.

**Antzekoak dira txirrindulariaren eta idazlearen sufri-mendu bakartiak?**

Bai, uste baino antzekoagoak. Bietan egiten da bide bat, batzuetan bakarrik, beste batzuetan norbaiten gupila hartzen, esprintak... Txirrindularitza gauza askoren metafora da, eta nik bizitzako gauza asko bizikletarekin konparatzen ditut.



ZABALA Juan Luis Zabala idazlea, Arrasaten.


IKER BARANDIARAN

TEST-A

**Herria:** Azkoitia. **Adina:** 44 urte. **Ikasketak:** Euskal Filologia. **Zaletasunak:** Idaztea, irakurtzea, bizikletan ibiltzea, inguruak ezagutzea... **Sakelakorik baduzu?** Ez, ez nik eta ezta bikotekideak. **Gidabaimenik badaukazu?** Bai, baina urte askoan ez nuen autorik hartu gura izan. Orain, berriz, egunero hartza ohitu naiz. **Zerk kezkatzen zaitu?** Desarrollismoak. Daramagun obra eta lan horiek guztiak dena hondatzen dabilta.

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

**Urriaren 12ko Hispanitatearen Eguna Debagoienean ospatzea ondo iruditzen zaizu?**



**biharamuna**

Iñigo Biain

## Bi koloreko bihotz txikiak

**E**z al dakik betidanik gure herria suntsitzen saiatu direla?!" abesten zuen **Aitor Uriartek** Latzen taldearen agurreko birako lehen kontzertuan, joan den egubakoitzean Errezu herrirka nafarrean. Hantxe izan nintzen neu ere, beste 500 lagun ingururekin batera. Bitartean, Donostian **Ricardo Saenz de Ynestrillasek** eta bere faxistek bertan behera utzi behar izan zuten Hispanitatearen Eguna Gipuzkoako hiriburuan ospatzeko asmoa, nahiz eta epaileren batek baimena eman zien hala jokatzeko... Eta ni lehen aldiz testu hau etxetik urrun idazten ari



naiz, Montejurra mendiaren magalean, faxistekin lotura historiko zuzena bezain tristea duen mendiaren magalean. Karlisten prozesio-gune izan da tontor hau aspalditik... Baina ez itzazue nahastu karlismoa eta juankarlismoa, gaur egun gainbehera doan korrante monarkiko defasatu hori. **Juan Carlos I.** Espainiako erregea ez da guztion errege, "atzerri hurbil bat" gidatzen duen erregea baidak, eta bere "militarren bi koloreko bihotz txikiak" ez dira inoiz gure bihotzen nagusi izango. Izan ere, "ez ahaztu lehen harria hemen nork jarri zuen". Latzen *dixit*.

**eguraldia**



MINIMOA  
**+10**

MAXIMOA  
**+25**

Oskarbi egongo da, hego-haizearekin. Arratsalde-gau partean, hodeiak ugartu egingo dira, baina giro atseginak jarraituko du.

[www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net)



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**UGARTE**  
AROTZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak  
Altzariak • Leihoak • Ateak



**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04